

**“Bizkaiko emakumeen elkartze-
egituran parte hatzen duten
alargunen egoera soziala”**



**Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Politiken
Idazkaritza Tekniko Nagusia**

2004ko ekaina



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Ahaldun Nagusiaren
Kabinetea

**Diputación Foral
de Bizkaia**
Gabinete del Diputado General

Bizkaia

The Bizkaia logo, featuring a stylized green leaf or tree shape above the word "Bizkaia".



AURKIBIDEA

	Or.
1. Sarrera	4
2. Aplikaturiko metodologiaren deskribapena	6
3. GAI MULTZOAK	
3.1. Ezaugarri sozio-demografikoen azterketa	10
3.1.1. Bizkaiko emakume alargunen taldearen ezaugarri demografikoak.....	10
3.1.2. Bizkaiko emakume alargunen taldearen bizikidetza inguruaren ezaugarriak	19
3.1.3. Bizkaiko emakume alargunen taldearen mendekotasun maila	30
3.2. Heziketaren eta lanaren ezaugarrien azterketa	40
3.2.1. Bizkaiko emakume alargunen taldearen heziketaren ezaugarriak	40
3.2.2. Bizkaiko emakume alargunen taldearen ezaugarri ekonomikoak.....	48
3.2.3. Bizkaiko emakume alargunen taldearen lanaren ezaugarriak	70
3.3. Astialdiarekin eta aisialdiarekin erlazionaturiko ezaugarrien azterketa	82
3.4. Elkartze-egiturarekin erlazionaturiko ezaugarrien	

azterketa	93
4. Laburpena eta ondorioak.....	106
5. Jarduketarako proposamenak.....	119
6. Bibliografia	156
7. ERANSKINAK	
I. eranskina: Taulak eta grafikoak.....	160
II. eranskina: Ikerketa fase desberdinetan parte hartzen duten erakundeak eta elkarteak.....	164
III. eranskina: Galdeketa (gaztelania - euskara)	165
IV. eranskina: Inkestatzaileen aurkezpen gutuna.....	172
V. eranskina: Jarduketa-proposamenak.....	173
VI. Aurkezpena.....	172

SARRERA

Bizkaiko Lurralde Historikoko emakume alargunen egoera sozialaren ikerketari buruzko txosten hau, izan ere, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foroak lehentasunezko zatitza proposaturiko helburuetariko bat da.

Foro hori Bizkaiko Foru Aldundiko Generoko Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusiak gidatzen du; horrek proiektu hau aurrera eramateko ardura hartu du eta proiektuaren helburu nagusia Bizkaiko emakume alargunen taldearen errealitatea ezagutzeko da; izan ere, era askotako arrazoen eraginez (batez ere, arrazoi ekonomikoak), emakumeok desberdintasun egoera dute euren bizitza pertsonalaren eta sozialaren arloetan.

Ikerketa honen barruan, **helburu nagusiak** honako hauek dira:

- Bizkaiko emakume alargunen taldea aztertzea; izan ere, biztanleria osoaren ehuneko handia osatzen dute, batik bat 70 urtetik aurrera, eta euren egoera pertsonalak eta sozialak ezaugarri komunak ditu.
- Bizkaiko emakume alargunen taldearen ezaugarrien erradiografia egitea: sozio-demografia, heziketa nahiz lana, harremanak, aisialdia eta elkartzegitura.
- Emakume elkarteek "interes taldetzat" duten eginkizuna aztertzea, talde horren garapen eta laguntza psiko-sozialerako.
- Jarduketarako proposamen zehatzak lantzea, Bizkaiko emakume alargunen egoera pertsonala eta soziala hobetzeko.

Hori dela eta, txosten hau aurkeztu nahi dugu, eta, bertan, emakume alargunen taldean jasotako iritzien azterketa kuantitatiboan eta kualitatiboan oinarrituz, emakume horien egoera soziala aztertzen da, euren bizitzaren arlo asko kontuan hartzen dituen ikuspegi zabal batetik begiratuta.



METODOLOGIA: Aplikaturiko metodologiaren deskribapena

Bizkaiko elkartzegituran parte hartzen duten emakume alargunen egoera sozialari buruz aurkezten den ikerketa honen oinarria talde horri buruzko informazio gaurkotua eta zuzena lortzea izan da.

Horretarako, metodologia mistoa, kualitatiboa eta kuantitatiboa erabili da, eta horrek hiru fase nagusi izan ditu:

- Bigarren mailako informazioa aukeratzea eta bilatzea; horrela, aztertutako gaiarekin erlazionaturiko ikerketak, artikulak, txostenak eta estatistikak lortu eta aztertu dira.
- Hurrengo fasean, emakume alargunen beraren eta emakume-elkarteetako ordezkarien partaidetza izan dugu; fase honetan, elkarrizketa sakonak eta taldeko dinamikak aplikatu dira.

Elkarrizketa sakonak, bestalde, emakume-elkarteetako ordezkariari egin zaizkie; izan ere, bereizi egin dira emakume alargunen taldeek osaturiko elkarteak eta egoera zibil desberdineko emakumeen partaidetza duten elkarteak.

Horrekin batera, taldeko dinamikak egin dira elkarte desberdinetan parte hartzen duten emakume alargunen taldeekin (udalerririk desberdinak, era guztietako adinak, etab.); horrela, esperientziak eta iritziak trukatzeko foroak sortu dira, bai banakako nahiz taldeko egoerei dagokienez eta bai elkarteetan garatzen diren jarduerari dagokienez.

Gainera, era askotako elkarte horietan parte hartzen duten emakume horien guztien arteko bilgunea sortu da.

- Talde horren egoerari buruzko benetako informazio zuzena lortzeko interesaren eraginez, inkesta pertsonala aplikatu zaio Bizkaiko udalerrri desberdinetako emakume alargunen lagin adierazgarri bati.

Inkesta pertsonalaren bidezko informazio bilketa horrek datu kuantitatibo garrantzitsuak eman dizkio ikerketari, eta datuok Bizkaiko emakume alargunen taldera estrapolatzeko modukoak dira.

Horretarako, emakume elkarten eta emakume alargunen elkarten partaidetza aktiboa izan dugu, eta horiek balio oso handiko informazio errealak eskaini diote ikerketari.

Datu horiek biltzeari esker, Bizkaiko Foru Aldundiko Idazkaritza Tekniko Nagusiak emakume horiek maila desberdinetan duten egoerari buruzko informazioa lortu du: demografia, bizikidetzak, osasuna, heziketa, ekonomia, lana, aisialdia edo astialdia, elkartze-egituraren eginkizuna, etab., eta gainera, talde horri zuzendutako jarduketak diseinatzeko oinarritzat balio dezake.

Inkestetan bildutako datuen tratamendu estatistiko informatikoak, bildutako gainerako informazioa ere kontuan hartuta, ondoren datorren txostenean adierazitako emaitzak eskaini ditu.

Modu grafikoan, aplikaturiko metodologiaren fitxa teknikoaren ezaugarriak honako hauek dira:

- Ikerketa kualitatiboaren teknikak: elkarrizketa sakonak eta eztabaida taldeak.

Elkarrizketa kopurua:

6

Profilak:

Emakume alargunen taldearekin loturiko Bizkaiko emakumeen elkarteetako ordezkariak.

Parte hartu duten elkarteak:

- BAGABILTZA.
- ALBOA.
- ARALDI.
- VIUDAS PARA LA IGUALDAD.
- AVIBA.
- ESKUZ-ESKU.

Talde kopurua:

4

Profilak:

Bizkaiko neurri desberdinetako udalerrietako emakumeen elkarteetan parte hartzen duten adin desberdineko emakume alargunak.

Parte hartu duten elkarteak:

- DERIOKO ETXEKOANDREEN ETA KONTSUMOAREN ELKARTEA, SUTONDOAN.
- EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO ELKARTEA, "ETXEKIN".
- ITZARTU.
- URIBE-KOSTAKO EMAKUME ALARGUNEN ELKARTEA, ALBOA.
- GALLARTAKO EMAKUMEEN ELKARTEA.
- ANDRE BERRI, EMAKUMEEN ELKARTEA.
- URRIBARRI ALETU, EMAKUMEEN ELKARTE SOZIO-KULTURALA.
- ITSAS KRESALA. ALARGUNEN ELKARTEA.
- MENDI ALDE, URTUELLAKO ETXEKOANDREEN ELKARTEA.
- BIZKAIKO EMAKUME MASTEKTOMIZATUEN ELKARTEA.
- BALMASEDAKO ETXEKOANDREEN ETA KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA.
- AVIBA. BALMASEDAKO ALARGUNEN ELKARTEA.

- Ikerketa kuantitatiborako teknika: galdeketak.

Bizkaiko emakume alargunen kopurua*	67.875 (INEren datuak)
Biztanleria: emakumeen elkartetan parte hartzen duten Bizkaiko emakume alargunak	Elkartetan ez dago emakume alargunen kopuruari buruzko daturik (emakume alargunen elkartetan izan ezik). Egoera zibilaren datua ez da erregistratzen. Beraz, laguntzaren neurria finkatzeko orduan, eskuarteko erregistro kopuruan oinarritu gara.
Lagina	Emakumeen elkartze-egituran parte hartzen duten Bizkaiko emakume alargunak.
Zerrendako erregistro kopurua*	585
Egindako inkesta kopurua	400
Konfiantza maila	%95
Akats bitartea	+/-%2,8
Galdeketaren metodologia	Banakakoa
Kontsultaturiko elkarteen tipologia	Emakumeen elkarreak eta emakume alargunen elkarreak
Bizkaiko emakume elkarteen kopurua	198
Kontsultaturiko elkarteen kopurua	29
Kontsultaturiko emakumeen laginaren banaketa geografikoa	Ezkerraldea: %43,3 Eskuinaldea: %27,3 Bilbo: %7,8 Enkarterriak: %15,3 Txorrierri: %2,5 Urdaibai: %4,0

* INE/ Eustatetik ateratako datuak. 2003.

*Emakumeen elkarreak emandako datuak, berori baita laguntzaren neurrirako kontuan harturiko oinarritzko biztanleria.



GAI MULTZOA: Ezaugarri sozio-demografikoen azterketa

Bizkaiko emakume alargunen errealitatera lehenengoz hurbiltzeko, datu estatistikoak eta ikerketan parte hartu duten emakume alargunengandik lorturiko informazioa aztertu da.

Ezaugarri sozio-demografiko horiei dagokienez, talde horren ezaugarri nagusiak adierazten dituzten aldagai batzuk aztertu dira:

- Aldagai demografikoak (kopurua, adina, zenbat urte alargunduta, osasun egoera,...).
- Bizikidetzaren unitatearekin loturiko aldagaiak (etxebizitzaren ezaugarriak, zerbitzuak, ...).
- Mendekotasun mailarekin erlazionaturiko aldagaiak (jasotako edo emandako ondasuna).

3.1.1. Bizkaiko emakume alargunen taldearen ezaugarri demografikoak

Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona alargunen kopuruaren oraingo erradiografiak aditzera ematen duenez, INEren datuek adierazitakoaren arabera, gaur egun 141.685 alargun daude (INEren datuak, 2003).

Euskadiko biztanleria osoa kontuan hartuta, gizon eta emakume alargunak %6,86 dira; ehuneko hori garrantzitsua da, batez ere biztanleriaren adinak gora egin ahala.

Horrela, %15,93 (12.749) gizonak dira eta gainerakoak, %84,07 (67.875), emakumeak dira.


Bizkaiko lurraldeari dagokionez, esan daiteke Euskadiko alargun guztien %56,90 herrialde honetan bizi dela.

Bizkaiko emakumeen kasuan, ehunekoia Euskadiko emakume alargun guztien %56,98koa da.

Bizkaian eskema berbera errepikatzen da, emakume alargunen ehunekoari dagokionez, eta ehuneko hori %84,18koa da.

Horrela, egin beharreko lehenengo hausnarketatariko batean, aditzera eman behar da Bizkaiko emakume alargunen bolumenak ehuneko oso handia duela; izan ere, kontuan hartu beharreko talde berezia da eta bere arazo bereziak ditu.

1. grafikoa: Bizkaiko gizon eta emakume alargunen kopuruaren konparazioa



Iturria: INE. 2003

Adin bitarteak kontuan hartuta, emakume alargun ia guztiak 50 urtetik gorakoak dira (%95,14). Ehuneko hori apur bat handiagoa da 70 urtetik gorako emakumeen kasuan (%66,14).

Halaber, esan behar da 35 eta 49 urte bitarteko emakume bizkaitar guztien %4,40 alarguna dela.

Emakume alargunek gizartean duen irudiari dagokionez, esan behar da gehienek uste dutela emakume horiek adin oso nagusikoak izaten direla; hala eta guztiz ere, datuek agerian jarri dutenez, 35 eta 69 urte bitarteko emakumeen ehuneko handia dago (gutxi gorabehera, %33); emakume horiek, kasu askotan, zama familiarrak edo ekonomikoak izaten dituzte, eta euren bizitzako *unerik onenean* daude, adinari dagokionez.

1. taula: Emakume alargunen kopurua Bizkaiko Lurralde Historikoan, adin bitartearen arabera

	Kopurua	Ehunekoa
15-34	319	0,46
35-49	2.993	4,40
50-69	19.689	29,00
70etik gora	44.894	66,14

Iturria: INE. 2003


Emakume alargunei egindako inkesten azterketa kuantitatiboan lorturiko emaitzak erreferentziatzat hartuta, hurrengo grafikoan ikusten da emakume horien %52,2 baino gehiago 50-69 urte bitartekoa dela eta %42,3 70 urtetik gorakoa dela.

Datu horiek Bizkaiko emakume alargunen egitura adierazten dute; gainera, informazio garrantzitsua ematen dute, Bizkaiko emakumeen elkartze-egiturari buruzko Genero Politiken Idazkaritza Nagusiak 2001ean egindako ikerketan

agertzen den datua¹: halako elkartze-egituretan parte hartzen duten emakumerik gehienak 50 urtetik gorakoak dira.

Azterturiko kasu honetan bi baldintza betetzen dira: emakume alargunen kopuru handiena 50 urtetiko gorakoa da eta datu hori bat dator emakumeen elkarten partaidetza handiagoarekin.

2. grafikoa: Emakume alargunen ehunekoa, adin bitarteen arabera



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Bizkaiko emakume alargunen eta emakume kopuru osoaren arteko konparazio azterketa eginez, adin bitarteen arabera, esan behar da 70 urtetik aurrera emakume erdiak Bizkaian adin horretan duten emakume guztien erdia baino apur bat gehiago direla; datu hori kontuan hartu behar da emakume horien egoera soziala eta arlo ekonomikoan nahiz sozialean duten ordezkapena aztertzeko orduan.

¹ Aukera Berdintasunaren eta Genero Politiken Unitatea (2001), "Bizkaiko emakumeen elkartze-egitura: ezaugarriak eta beharizanak", Bizkaiko Foru Aldundia.

2. taula: Emakume guztien eta emakume alargunen kopurua, adin bitartean arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoan

	Emakume kopurua	Alargunen %
15-34	162.810	0,20
35-49	130.453	2,29
50-69	135.767	14,51
70 baino gehiago	81.526	55,07

Iturria: INE. 2003

".....datu errealik edukiz gero.....ehunekorik txikiena hogeita hamar urteko emakumearena da; berrogeitaka urtekoen artean ehunekoa altuagoa da, eta ehunekorik handiena 60 urteko emakumeen artean dago....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

"...handiagoa, orokorrean, 60tik gora.....gazterik egonez gero....apuntatu egiten dira, baina ez dituzu ikusten, 60 urte baino gutxiagorekin.....zeure arloan zabiltzalako....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

".....berrogeita hamar urteko edo apur bat gehiagoko jende asko alargun gelditzen da...." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

Elkarrizketan parte hartu duten emakumeen alarguntasun egoeraren **antzinatasunaren batez bestekoa** 11 urtekoa da (10,86).

Datu horien denbora bitartean arabera bilduta ikusten denez, emakumerik gehienak 10 urte baino gehiagotik dira alargunak (%41,5).

Halaber, aipagarria da 5-10 urtetik honako alarguntasuna dutenen kopurua (35,2), baita 5 urtetik beherako alarguntasun egoeran daudenen kopurua ere (%21,3).

3. taula: Alarguntasunaren urte kopurua (%)

	Kopurua	Ehunekoak
5 urte baino gutxiago	85	21,3
5-10 urte	141	35,2
11-15 urte	82	20,5
15 urte baino gehiago	84	21,0
Ed/Ee	8	2,0
Guztira	400	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Elkarrizketaturiko emakume horiek alargun izandako urte kopurua euren adinarekin gurutzatuta ikusten denez, urte gehiago edo gutxiago edukitzea ez dago lotuta alarguntasuneko urte gehiago edo gutxiago edukitzearekin.

Adibidetzat, hurrengo taulan ikusten denaren arabera, alarguntasuneko urte kopururik txikiena dutenak 50-69 urte bitarteko emakumeak dira, baita 49 urtetik beherako emakumeak ere.

70 urtetik gorako emakumeen kasuan, %51,9 orain dela 15 urte baino gehiagotik hona dira alargunak; horrenbestez, emakume horiek gaztetarik gelditu ziren alargun, eta 50 eta 69 urte bitarteko emakumeen kasuan ere gauza bera gertatzen da, horien %45,6 baino gehiago 15 urte baino gehiagotik hona baitira alargunak.

Ikertzen ari garen taldeen ezaugarriei dagokienez, datu horiek adierazten dutenez, emakumeen kopuru handi bat orain dela 10 urte baino gehiagotik hona dira alargunak, eta horrek ondorio jakinak ditu euren bizitza pertsonalean eta sozialean.

4. taula: Alargun egondako urte kopurua eta adina (%)


	34 urtera arte	35-49 urte bitartean	50-69 urte bitartean	70 urte baino geh.
1-5 urte	1,0	7,8	59,2	32,0
6-10 urte	0,9	5,3	53,1	40,7
11-15 urte	1,2	2,5	48,8	47,5
15 urtetik gora	0,0	2,5	45,6	51,9

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Beste alde batetik, emakume alargunen **osasun egoera** sarritan lotuta dago emakume horien taldearen batez besteko adinarekin.

Hurrengo grafikoan ikusten denez, elkarrizketaturiko emakumeen %50,2k esan du osasun arazo garrantzitsuren bat duela; gainerako %49,8k, berriz, ez omen dauka aipatzeko moduko osasun arazorik.

3. grafikoa: Osasun arazoren bat dutenen ehunekoa (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Osasun arazoren bat edukitzea edo ez edukitzea talde horren adinarekin erlazionatuz gero, esan daiteke adinak eragina duela osasun psikikoan edo fisikoan arazoren bat edukitzearekin.

Osasun arazoren bat duen taldea 70 urtetik gorakoena da; hain zuzen ere, %65,4koa, eta hortik beherakoen ehunekoa %34,6koa da.

Adinak gora egin ahala, gaixotasunen bat duten emakumeen kopurua gero eta handiagoa da; 34 urtetik beherako emakume alargunen kasuan izan ezik, horien %33,3k osasun arazoren bat duelako, eta kasu honetan arazo horietariko gehienak psikologikoak izaten dira.

5. taula: Osasun arazoren bat edukitzea eta adina (%)

	34 urtera arte	35-49 urte	50-69 urte	70 urtetik gora
Bai	33,3	27,8	41,5	65,4
Ez	66,7	72,2	58,5	34,6

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Osasun arazoren bat duten emakumeen %63,4aren kasuan arazo horiek fisikoak dira, %29,7aren kasuan mugikortasun arazoak, eta %6,9aren kasuan psikikoak.

Arazo fisikoen barruan, honako hauek dira aipagarriak: hezurretako arazoak, artikulazioak, nekea, bihotza, zirkulazioa, tentsioa, etab.

Arazo psikikoei dagokienez, gehienak alarguntasun egoeraren eraginezko depresioak izaten dira.


6. taula: Osasun arazo mota (%)

	Kopurua	Ehunekoak
Fisikoak	128	63,4
Mugikortasuna	60	29,7
Psikikoak	14	6,9
Guztira	202	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Elkarrizketaturiko emakume alargunei dagokienez, osasun arazoren bat dutenen %57,9k esandakoaren arabera, gaixotasun horiek eragin nabaria dute euren bizitza pertsonalean eta sozialean.

4. grafikoa: Eguneroko bizitzako ondorioak (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Ondorio mota nagusia mugikortasunari lotutakoa da, elkarrizketaturiko emakumeen %52,29arentzat. Egoera hori zenbait alderditan adierazten da, emakume horien bizitzan: etxeko lanak, etxetik sarriago irten, lan batzuk ezin egin, aisialdiko edo heziketako jarduera batzuetan ezin parterik hartu, etab.

3.1.2. Bizkaiko emakume alargunen taldearen bizikidetza inguruaren ezaugarriak

INEk Euskal Autonomia Erkidegoari buruz emandako datuak bilduta, esan daiteke 15 eta 49 urte bitarteko emakume alargunen batez besteko seme-alaba kopurua 1,21ekoa dela.

Adin bitarte horretan [seme-alaba](#) kopururik handiena dutenak emakume ezkonduak eta bananduak/dibortziatuak dira.

7. taula: Bizirik jaiotako [seme-alaba](#) kopurua, 15-49 urte bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan

	B. besteko kopurua
Ezkongabeak	0,09
Ezkonduak	1,70
Alargunak	1,21
Bananduak/ Dibortziatuak	1,53

Iturria: INE. 2003

" *gehienek seme-alabak dituzte, bi, hiru.....*" (Emakume Elkartearen Ordezkarria)

".....orain dela 15 urte alargundu nintzen, hiru seme-alabekin....."
(Emakume alargunak)


"...hamabi urte alargun, hiru seme-alabekin,.....bakarrik gelditzen zara seme-alabak hezteko... guztiak ikasten..." (Emakume alargunak)

Elkarrizketaturiko emakume alargunen kasuan, %56,5 bakarrik bizi dira euren etxean, eta %43,5 beste norbaitekin bizi dira.

Bi kasutan, arazoa sor dezaketen bi egoera planteatu daitezke:

- Etxean bakarrik bizi diren emakume alargunak: laguntasunik ez, bakardade egoerak, ondorio psikologikoak, eguneroko lanak egiteko laguntzarik ez, gabezia ekonomikoak, etab.
- Etxean beste pertsona batzuekin bizi diren emakume alargunak: pertsona horiekiko mendekotasun ekonomikoa, euren zaintzekiko mendekotasuna, gastuen gorakada, etab.

5. grafikoa: Bizikidetzaren unitatea: etxean bakarrik bizi ala ez (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

".....adineko pertsona bat bere ingurutik ateratzea oso gogorra da, zahar-etxe batera edo seme-alaben etxera eramatea....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

".....nire ustez, bakarrik bizi diren gizon-emakumeak euren inguruan bizi behar dute.....etxeko laguntza handiagoa, eguneko zentro gehiago,....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

21

Datu hori elkarrizketaturiko emakumeen adinarekin gurutzatuta, hurrengo taulan ikusten da etxean bakarrik bizi ez diren emakume alargunen ehunekorik handiena 35-69 urte bitartekoa dela, %66,7arekin eta %59arekin, hurrenez hurren.

70 urtetik aurrera, emakumeak bakarrik bizi dira kasu guztien %75,9an, eta hori azpimarratzeko modukoa da.

8. taula: Bizikidetzaren unitatea: etxean bakarrik bizitzea edo ez eta adina (%)

	34 urtera arte	35-49 urte	50-69 urte	70 urtetik gora
BAi	100,0	33,3	41,0	75,9
Ez	0,0	66,7	59,0	24,1

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Etxean bakarrik bizi ez diren emakume alargunen kasuan, batera bizi den pertsona kopurua 2-3 bitartekoa da, emakume alargunak ere kontuan hartuta.

Talde horren %58,4 beste pertsonaren batekin bizi da, eta etxean bi izaten dira. Kasu guztien %31,2an hiru pertsona bizi dira, eta azterturiko kasu guztien %10,4an 4-5 pertsona bizi dira.

9. taula: Etxean bizi den pertsona kopurua (%)

	Kopurua	Ehunekoa
2	101	58,4
3	54	31,2
4	14	8,1
5	4	2,3
Guztira	173	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Etxean emakume alargunekin bizi diren pertsona horien mendekotasun maila %64,2koa da (ertaina-handia).

Datu hori garrantzitsua da talde horren errealitatea ezagutzeko; izan ere, emakume horien bizikidetzaren unitatearen barruan euren menpeko beste pertsona batzuk egoteak (arloan ekonomikoan, zaintzetan, laguntasunean, etab.) talde horrek bere gain hartzen duen erantzukizun maila adierazten du, inguruko beste pertsona

batzuei dagokienez, eta erantzukizun horri gehienetan eurek bakarrik egin behar izaten diote aurre.

10. taula: Etxean bizi diren pertsonen mendekotasun maila(%)

	Kopurua	Ehunekoa
Txikia	62	35,8
Ertaina	73	42,2
Handia	39	22,0
Guztira	173	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Mendekotasun maila handi hori hurrengo taulan ere azaltzen da; bertan, kasu guztien %82,7an, emakume horiekin etxean bizi diren pertsonak euren seme-alabak izaten dira.

Seme-alaba horiek, kopuru oso handian, 20 eta 30 urte bitartekoak izaten dira; gainera, era askotako mendekotasun egoerak sortzen dituzte: ekonomikoa, zaintzak, laguntasuna, etab. Egoera horiek, berriz, oraingo gizartean gertaturiko aldaketa kulturalaren eta belaunaldi mailakoaren eraginezkoak ere badira, gaur egun seme-alabak gero eta beranduago irteten baitira etxetik.

11. taula: Etxean bizi diren pertsonen erlazio mota (%)

	Kopurua	Ehunekoa
Seme-alabak	143,0	82,7
Familiakoak	22,0	12,7
Aita/ama	6,0	3,5
Beste batzuk	2,0	1,1
Guztira	173	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Bestalde, emakume alargunekin etxean bizi diren pertsonak ahaidetasun edo familia erlazioak dituzte eurekin, eta kasu guztien %3,5ean emakume horien gurasoak izaten dira.

Emakume alargunen taldearen bizikidetza inguruaren barruan aztertu beharreko beste puntu bat **etxebizitzaren banaketaren nahiz horniduraren ezaugarriak** eta eskaintzen dituen zerbitzuak dira.

Datu estatistiko orokorretara itzulita, Euskadin erosotasun mailarik txikiena Bizkaiko Lurralde Historikoan dago, eta horren ehunekoa %63,1ekoa da, EUSTATEk etxebizitzetako instalazioei eta zerbitzuei dagokienez adierazitakoaren arabera.

Bizkaiko etxebizitzetan gutxien dauden instalazioen eta zerbitzuen artean, aipatzekoak dira banakako berogailua eta, bigarrenez, telefonoa, baina alde handiarekin.

12: Etxebizitza nagusiak lurralde eremuka sailkatuta, euren instalazioen eta zerbitzuen arabera. Erosotasun indizeak


	Ur beroa	Komuna	Banakako berogailua	Telefonoa	Erosotasun indizea
Araba	95,9	99,1	53,4	88,9	72,3
Bizkaia	96,6	99	22,1	91,2	63,1
Gipuzkoa	98,7	99	31,1	91,1	66,7
EAE	97,2	99	29,2	90,9	65,5

Iturria: EUSTAT. 2003

Inkestan parte hartu duten emakume alargunen kasuan, horien etxebizitza, kasu guztien %92,0an, zenbait solairutako eraikin bateko etxebizitza da, horrek gastuen eta zerbitzuen arloan dakarrenarekin.

Kasu guztien %7,2an familia bakarreko etxebizitzan eta %0,8an itsatsitako etxe batean bizi dira.

6. grafikoa: Etxebizitza mota (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Elkarrizketaturiko emakume alargunen %88,8aren kasuan, etxea eurenak dira; hau da, eurenak dira, hipoteka eduki edo ez eduki.

Datu hori bi aldagaik azaltzen dute: batetik, geure gizartean etxebizitza erosteko dagoen kultura; bestetik, emakume alargunen batez besteko adina altua izatea, etxebizitza orain dela urte batzuk eskuratzeari dagokionez.

Kasu guztien %3,5ean alokairuan bizi dira, eta beste %3,5ean familiaren etxean (gurasoak, seme-alabak, familiakoak, etab.).

Datu horiek ez dute salbuesten behin-behinekotasun egoerarik, etxebizitzaren arloan; hau da, emakume alargunik gehienak euren etxebizitzan biziak ez du esan nahi beharizan egoerarik ez dutenik (beharizan ekonomikoa edo arreta pertsonalekoa).

Etxebizitzaren gastuei diru-sarreraren erdiarekin aurre egin behar izatean, egoerarik gehienetan neurriak hartu behar izaten dira, eta horiek, kasuen arabera, nahiko edo oso gogorrak izan daitezke (etxebizitza saldu eta gastu gutxiago duen besteren bat erosi, hipotekari aurre egin ezin, etxeko gastu orokorreari aurre egin ezin, etab.).

13. taula: Etxebizitza edukitzeko erregimena (%)

	Kopurua	Ehunekoa
Jabetza	355,0	88,8
Alokairua	14,0	3,5
Familia	14,0	3,5
Beste batzuk	1,0	0,2
Ed/Ee	16,0	4,0
Guztira	400	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Etxebizitzaren ezaugarriei dagokienez, elkarriketaturiko emakume alargunen etxebizitzaren batez besteko neurria 77,72 metro karratukoa da, eta, kasurik gehienetan, honako gela hauek ditu: atondoa, sukaldea, komuna, egongela-jantokia eta hiru logela.

14. taula: Etxebizitzako espazio kopurua (%)

	0	1	2	3	4
Atondoa	39,0	61,0	0,0	0,0	0,0
Sukaldea	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0
Komuna	0,6	91,5	7,6	0,0	0,3
Komun txikia	78,5	21,5	0,0	0,0	0,0


Egongela/jantokia	51,1	48,9	0,0	0,0	0,0
Egongela	43,5	56,5	0,0	0,0	0,0
Jantokia	93,2	6,8	0,0	0,0	0,0
Logelak	0,0	2,8	31,9	55,6	9,7
Bulegoa	97,5	2,0	0,6	0,0	0,0
Beste batzuk	97,7	2,3	0,0	0,0	0,0

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Etxebizitzen hornidurari dagokionez, gehienek oinarrizko hornidura izaten dute: telefonoa, garbigailua, hozkailua, sutea nahiz labea, berogailua eta telebista.

Plater-garbigailua, mikrouhin-labea eta ekipo informatikoa urriagoak dira.

7. grafikoa. Etxebizitzaren hornidura (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Bestalde, Bizkaiko eraikinetako zerbitzuei buruzko datu orokorrek etxebizitzeko kopuru handiak dituen gabeziatariko bi adierazten dituzte: igogailurik eza eta irisgarritasuna errazten duten baliabiderik eza.

15. taula: Zerbitzuak Bizkaiko eraikinetan (absolutuak)

	BAI	EZ
Igogailua	13.217	57.158
Irisgarritasuna	13.654	56.721
Garajea	17.855	52.520
Gasa	29.887	40.488
Telefono linea	64.751	5.624


Iturria: INE. 2004

Datu horiek elkarrizketaturiko emakume alargunen etxebizitzeko ere betetzen dira, batez ere igogailuari dagokionez.

Kasu honetan, etxebizitzeko %58,4k ez dauka igogailurik.

Beste zerbitzu batzuk ere (Internet, trastelekua, garajea eta aire egokitua) elkarrizketaturiko emakumeen kopuru txiki batek baino ez ditu etxean.


8. grafikoa: Eraikineko zerbitzuak (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Horrela, talde horrek bere etxebizitza oraingo beharrianetara (ekonomikoak, pertsonalak, osasunekoak, etab.) egokitzeari dagokionez ikusten duen beharriaz aztertzeke orduan, emakumeen %75,1ek esan du ez daukala halako beharriaz, eta %28,6k esan du baietz.

9. grafikoa: Etxebizitza egokitzeko beharriaz (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Aldaketa edo egokitzapen horiek, batez ere, eraikinean igogailua edukitzera murrizten dira (%49,05). Horren atzetik, komuna berritzea aipatzen da (%13,21), edo etxebizitza bera aldatzea (%4,72), arrazoi ekonomikoaren eraginez (ezin aurre egin, handia, gehiegizko gastuak, etab.).

3.1.3. Bizkaiko emakume alargunen taldearen mendekotasun maila

Mendekotasuna aipatzen denean, termino horren barruan adiera asko egon daitezke, testuinguruaren arabera.

Garatzen ari garen azterketaren ikuspegitik begiratuta, mendekotasuna gainontzekoren baten laguntza behar (eguneroko jarduerak egiteko edo biztanle guztientzat arruntzat hartzen diren jarduerak egiteko) duten pertsona batzuen egoera da.

Orokorrean eta testuinguruan kokatzeko, Osasunari buruzko Inkesta Nazionaleko² datuei buruz egindako gogoetak hartuko ditugu erreferentziazat; horrela, esan daiteke mendekotasun maila handiagoa edo txikiagoa egotean eragina duten faktoreak honako hauek direla:

- **Sexua:** Hamar emakume nagusitik ia hiru mendekotasun egoeran daude; gizonen kasuan, bostetik bat dago egoera horretan. Emakumeen mendekotasun handiago hori emakumeak ezgaitasunarekin luzaroago bizitzearen eraginezkoa da, eta ez euren artean horrek eragin handiagoa izatearen eraginezkoa. Izan ere, sexua estu lotuta dago zahartzaroko mendekotasunean eragina duten beste aldagai batzuekin, emakumeen gailentasun handian ezkututzen diren aldagaiekin: egoera zibila, diru-sarreraren maila edo alfabetatze maila. Aldagai horiek sartu ondoren, sexuaren garrantzia murriztu egiten da. Emakumeek mendekotasun handiagoa izatea adinaren, alarguntasunaren eta bakardadearen ondoriozkoa da, eta ez da emakume izatearen ondoriozkoa.

² M^a Dolores Pugaren eta Antonio Abellánen artikulutik ateratako datuak, Fuentes Estadísticas aldizkariaren 68. zenbakian agertutakoak (2002ko iraila-urria).



- **Adina:** Adinak desberdintasun adierazgarriagoak sortzen ditu. 75 urteko eta hortik gorako pertsonen mendekotasun tasek bikoiztu egiten dituzte 65-74 urte bitartekoen tasak. Adina mendekotasun egoeran egotearen eragile nagusienetarikoa da.
- **Egoera zibila:** Ezkonduen artean, lautik batek mendekotasun egoeran jartzeko moduko arazoren bat dauka (%21); pertsona alargunen artean egoera hori kasu guztien %38koa da. Jakina, biztanle alargunen adin egitura zaharragoa nabaritu egiten da; gainera, ez da ahaztu behar bakardadeak eta laguntasunik ezak eragina dutela norberaren autonomiaren pertzepzioan.

Kasu askotan, jarduera batzuk egiteko beste pertsonaren batekiko mendekotasuna edukitzea, mendekotasun hori larria izan ezean, ez da nabaritzen, harik eta laguntza ematen zuen pertsona hori (senarra/emaztea) desagertu arte. Mendekotasun objektiboaren gorakada horri, bestalde, mendekotasun sentazioaren gorakada ere gehitu behar zaio, eta hori estu lotuta dago bakardadearen, ahultasunaren eta "utzikeriaren" pertzepzioarekin. Pertzepzio horri dagokionez, "alarguntasunaren shocka" kontzeptua sortu da (Thierry, 1999), eta hori estu lotuta dago pertsona alargunek ezkonberriei dagokienez duten hilkortasun oso handiarekin.

- **Lorturiko hezkuntza maila:** Dirudienez, jarraibide unibertsala dago, eta horrela, hezkuntzarik urrineko biztanle taldeek osasun adierazlerik txarrenak edukitzen dituzte (Blaxter, 1989). Unibertsitateko maila duten adin nagusikoek mendekotasun tasa txikiagoa dute (hamarretik batek). Baina horiek gutxienak dira (oraingo adin nagusiko guztien ia %4), eta, ikasketa maila zenbat eta txikiagoa izan, mendekotasun maila orduan eta handiagoa da.

Gurutzagune garrantzitsua lehen hezkuntzatik goi mailako hezkuntza mailetara igarotzean dago, bai horiek baliabide kultural baliotsuak eskaintzen dituztelako (zahartzaroko beharriazaneia aurre egiteko), bai luzapen akademiko horrek lanbide ibilbide hobe ahalbidetzen duelako (beraz, baliabide ekonomiko eta



sozial egokiagoak eskaintzen ditu), bai lan merkatutako sarrera atzeratzeko aukerak eta hezkuntza baliabideak pilatzen jarraitzeko aukerak jatorrizko familian batez bestekoak baino baliabide maila askoz ere handiagoa zegoela adierazten duelako. Segurutzik, biztanle talde horren barruko mendekotasun tasa txikia faktore horiek guztiak biltzearen eraginezkoa da.

- **Analfabetismoa:** Analfabetismoak presentzia handia eta penagarria dauka adin nagusiko pertsonen artean, batik bat emakumeen artean. Analfabetoen artean, mendekotasun tasek bikoiztu egiten dituzte irakurtzen eta idazten dakitenen arteko tasak. Adineko bi analfabetotik batek laguntza behar du. Gainerako aldagaiak kontrolatuz, analfabetoek dituzten arriskuak ia hirukoiztu egiten dituzte gainerakoen arriskuak. Horrenbestez, badirudi adineko pertsonentzat gutxieneko baliabide kulturalak balio handiko tresnak direla gizarte konplexu honetan "moldatzeko", eta gainera, ezinbestekoak direla norberaren zailtasunak gainditzeko edo horiei aurre egiteko behar diren estrategiak eta baliabideak aurkitu ahal izateko.
- **Lanbidea eta sedentarismoa:** Ikerketa batzuetan, erlazioa aurkitu da mendekotasunaren eta lanbidearen artean; hala eta guztiz ere, adinekoen oraingo belaunaldientzat horren ondorioa badirudi ez dela oso adierazgarria izan. Hala ere, bizitza osoan garaturiko jarduera motak ondorioak ditu eta lotura oso estua dago mendekotasunaren eta bizitza osoko jarduera sedentarioen artean; izan ere, pertsona sedentarioek mendekotasunean erortzeko duten arriskua bikoiztu egiten da.
- **Diru-sarreraren maila eta estatus soziala:** Diru-sarrerak norberaren osasunari eta bizi-kalitateari dagokionez dauden baliabide erabilgarrien kantitatean oinarritzen dira. Diru-sarrerak txikiak edo oso txikiak dituzten familien artean, mendekotasunaren eragina errenta handienaren bikoitza da; izan ere, azken horiek merkatuko mekanismoen bidez bermatu dezakete beharizan horren estaldura. Emakumeen kasuan, mendekotasuna askoz ere handiagoa da hilean 360,60 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenen artean;


talde horren barruan, mendekotasunaren eragina lotuta egon daiteke alarguntasuneko pentsioekin, eta beraz, diru-sarreraren urritasuna, adin nagusiagoaren eragina eta bakardade handiagoa egon daitezke. Adin nagusikorik gehienak emakumeak eta alargunak izateaz gain, alarguntasun pentsio txikien eraginez, pobreak ere badira.

- **Osasun subjektiboa:** Lotura oso estua dago norberaren osasun egoeraren pertzepzio subjektiboaren eta mendekotasun kasuen artean, eta horretan, korrelazio maila altuak daude; gainera, oso txarto sentitzen direnen artean, mendekotasunaren presentzia %60koa da, eta maila horiek ez dira lortzen diagnostikaturiko hiru gaixotasun kroniko edo gehiago dituztenen artean ere. Ondo edo oso ondo dauden adin nagusikoen artean, mendekotasun tasak oso txikiak dira. Mendekotasun mailak lotura estuagoa dauka norberaren osasun egoeraren pertzepzio subjektiboarekin, sendagileak egindako diagnostikoarekin baino.

Faktore horiek guztiak, kasu askotan, pertsona alargunen taldeari buruzkoak dira, batez ere emakumei buruzkoak, eta horien ehunekorik handiena 70 urtetik gorakoen baremoan dago (emakume alargunen %67, gutxi gorabehera).

Egindako inkestetan lorturiko datuekin jarraituz, hurrengo grafikoan ikusten da elkarrizketaturiko emakume alargunei eguneroko bizitzan kanpoko laguntzaren edo zaintzaren bat jasotzen ote duten galdetzean %88k ezetz erantzun duela.

10. grafikoa: kanpoko laguntzaren edo zaintzaren bat jasotzea (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

%12k dioenez, kanpoko laguntzaren bat jasotzen dute; halaber, adinaren, bizikidetzaren edo osasun egoeraren aldagaiek eragin handiagoa edo txikiagoa dute, kanpoko zaintzarik jasotzeari edo ez jasotzeari dagokionez.

34

Adinaren kasuan, hurrengo taulan adierazitakoaren arabera, laguntzarik handiena jasotzen dutenak 70 urtetik gorako emakumeak dira (%18,5).

16. taula: Kanpoko laguntzaren edo zaintzaren bat jasotzea eta adina (%)

	34 urtera arte	35-49 urte	50-69 urte	70 urtetik gorako
Bai	0,0	5,6	8,5	18,5
Ez	100,0	94,4	91,5	81,5

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Halaber, etxean bakarrik bizi diren emakumeek ehuneko handiagoan jasotzen dute kanpoko prestazio edo laguntzaren bat, euren eguneroko bizitzan; hain zuzen ere, %16,3 eta bakarrik bizi ez direnen artean ehuneko hori %7,6koa da.

17. taula: Kanpoko laguntzaren edo zaintzaren bat jasotzea eta bizikidetzaren unitatea (%)

	Bai bakarrik	Ez bakarrik
Bai	16,3	7,6
Ez	83,7	92,4

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Beste aldagai batek (osasun arazoak edukitzea ala ez edukitzea) eragin handia dauka kanpoko laguntzak edo prestazioak jasotzearen aldetik. Horrela, osasun arazoren bat duten emakume alargunen %20,8k kanpoko laguntzaren bat jasotzen dute, eta arazorik ez dutenen kasuan ehuneko hori %3,7koa da.

18. taula: Kanpoko laguntzaren edo zaintzaren bat jasotzea eta osasun arazoak edukitzea (%)

	Bai osasun arazoa	Ez osasun arazoa
Bai	20,8	3,7
Ez	79,2	96,3

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Eguneroko bizitzan kanpoko laguntzaren edo zaintzaren bat jasotzen duten emakumeen artean, laguntza hori kasu guztien %57,4an kontrataturiko pertsonak ematen dute. Kontratazio hori publikoa (udaletxeek, Aldundiak edo elkarte batzuek emandako etxez etxeko laguntza) edo pribatua izan daiteke.

Hemen ere familiakoen eginkizuna garrantzi handikoa da, laguntza horiek ematen dituzten pertsonen %27,8 familiakoak izaten baitira.

Lagunek, %8,5arekin, leku garrantzitsua dute talde horren mendekotasun erlazioetan.

19. taula: laguntza ematen duten pertsonak/erakundeak (%)

	Kopurua	Ehunekoa
Kontrataturiko pertsona	27	57,4
Familiakoak	13	27,8
Lagunak	4	8,5
Auzokoak	1	2,1
Elkarteak	1	2,1
Erakundeak	1	2,1
Guztira	47	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Jasotako laguntza mota, %7,78an, etxe barrukoa da, hau da, etxeko lanak egitearekin lotutakoa.

Beste laguntza batzuk honako hauek dira: laguntasuna (%8,5), osasuna (%6,4) eta laguntza psikologikoa (%6,4).


20. taula: jasotako laguntza mota (%)

	Kopurua	Ehunekoa
Etxeko lanak	37	78,7
Laguntasuna	4	8,5
Osasuna	3	6,4
Psikologikoa	3	6,4
Guztira	47	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Emakume horiek ematen dituzten laguntzei edo zaintzei dagokienez, kanpoko laguntzaren edo zaintzaren bat ematen dutenen ehunekoa %24,4koa da.

11. grafikoa: kanpoko laguntzaren edo zaintzaren bat ematea (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Kasu honetan, laguntza edo zaintzaren bat jasotzen duten pertsonak edo erakundeak familiakoak dira %72,2an (gurasoak, seme-alabak, ilobak, etab.).

Puntu honen barruan, aipagarria da emakume horiek geure gizartean duten eginkizuna, familia inguruan beharrezana duten adineko pertsonen loben zaintzan.

Era berean, aipagarria da elkarteetan ematen dituzten zerbitzuak (%16,5) eta horiek ez dira emakumeenak soilik izaten, laguntzakoak, erlijiosoak eta abarrekoak ere izaten baitira.

21. taula: laguntza jasotzen duten pertsonak/erakundeak (%)

	Kopurua	Ehunekoa
Familiak	70	72,2
Elkarteak	16	16,5
Lagunak	8	8,2
Erakundeak	3	3,1
Guztira	97	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Ematen diren zerbitzu horien artean, honako hauek aipa daitezke: laguntasuna (%35,1), etxeko lanak (%32,0) eta osasun zaintzak (%20,6).

22. taula: Emandako laguntza mota (%)

	Kopurua	Ehunekoa
Laguntasuna	34	35,1

Etxeko lanak	31	32,0
Osasuna	20	20,6
Psikologia	5	5,2
Mugikortasuna	1	1,0
Ed/Ee	6	6,1
Guztira	97	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004



GAI MULTZOA: Heziketaren eta lanaren ezaugarrien azterketa

3.2.1. Bizkaiko emakume alargunen taldearen heziketaren ezaugarriak

Oro har, hurrengo taulan ikusten denez, Bizkaiko Lurralde Historikoko 10 urteko edo gehiagoko biztanle guztien %47,30 baino gehiagok eskolaurreko eta oinarrizko ikasketak dituzte.

Bigarren tokian, unibertsitateko ikasketak (ertainak edo goi mailakoak) dituzten pertsonak daude, guztizkoaren %16,05arekin.

23. taula: 10 urteko edo gehiagoko biztanleriaren banaketa Bizkaian, heziketa mailaren arabera.

	Kopurua	%
Analfabetoa	10.004	0,95
Ikasketa barik	59.830	5,70
Eskolaurrea eta oinarrizkoak	496.582	47,30
Lanbide Heziketa	147.916	14,09
Bigarren mailakoak	167.003	15,91
Ertainak eta goi mailakoak	62.103	5,91
Goi mailakoak	106.486	10,14

Iturria: Eustat. 2003

Sexuen aldetik, emakume analfabetoen edo ikasketarik gabekoen ehunekoa gizonena baino handiagoa da.

Halaber, esan behar da unibertsitateko ikasketa ertainak edo goi mailakoak dituzten emakumeen kopurua gizonena baino apur bat handiagoa dela; gainerako kategorietan ere gauza bera gertatzen da, lanbide ikasketetan izan ezik.

24. taula: 10 urteko edo gehiagoko biztanleriaren banaketa Bizkaian, heziketa mailaren eta sexuaren arabera

	Gizonak	Emakumeak
Analfabetoa	2601	7403
Ikasketarik gabe	24006	35824
Eskolaurrea eta oinarrizkoak	228932	267617
Lanbide Heziketa	86893	61023
Bigarren mailakoak	83320	83683
Ertainak eta goi mailakoak	83185	85404

Iturria: Eustat. 2003

Heziketa mailen barruko desberdintasun hori Bizkaiko 10 urte edo gehiagoko gizonen eta emakumeen adin bitartekak aztertzeko orduan ere ikusten da.

Adina zenbat eta handiagoa izan, pertsonen heziketa maila orduan eta txikiagoa da, batez ere 60 urtetik gora; talde horren barruan dago emakume alargunen ehunekorik handiena.

Ehuneko handi bat oinarrizko ikasketak dituztenen artean biltzen da, eta heziketa hori duten pertsonarik gehienak 45 urtetik gorakoak dira.

25. taula: 10 urte edo gehiagoko biztanleriaren banaketa Bizkaian, heziketa mailaren eta adinaren arabera

10-34	35-44	45-59	60-69	69tik gora
-------	-------	-------	-------	------------

Analfabetoa	658	510	1891	2791	4154
Ikasketarik gabe	1737	2596	14046	18498	22953
Eskolaurrea eta oinarrizkoak	144198	70862	236799	86930	71689
Lanbide Heziketa	90413	28579	19478	6463	2983
Bigarren mailakoak	94171	34140	27310	8862	5291
Ertainak eta goi mailakoak	108511	32126	20379	7578	12864

Iturria: Eustat. 2003

".....Adin ertainekoek, ikasketa mailari dagokionez, ez dute ikasketa handirik, batzuek lizentziaturak eduki arren, baina horretan jardun gabe,..... (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

"baina hemen, orokorrean, etxean gelditu den emakumea da, seme-alabak zaintzen gelditu dena, eta hori baztertuta eduki du.....(Emakume Elkartearen Ordezkaría)

42

Egindako inkesten emaitzei dagokienez, elkarrizketaturiko emakume alargunen %89,3k ez dauka ikasketarik edo, eduki arren, horiek oinarrizkoak edo eskola graduatukoak dira.

Hori, berriz, Bizkaiko datu orokorren isla baino ez da, adin bitarte jakinetan (50 urtetik gorakoak) dauden emakumeen ikasketa mailari dagokionez.

Oro har, ikasketa maila ertaineko edota baxuko emakumeak dira; horren eraginez, kasu askotan, zailagoa da emakumeok lan merkatuan sartzea, batez ere kasurik gehienetan berehalako beharrizan ekonomikoak dituen talde batean.

26. taula: Bizkaiko Lurralde Historikoko emakume alargunen ikasketa maila (%)

	Kopurua	Ehunekoak
Ikasketarik gabe	67	16,8
Oinarrizkoak/Eskola graduatua	290	72,5
Batxilergoa/UBI	14	3,5
LHI/LHII	17	4,2
Diplomatura	8	2,0
Ed/Ee	4	1,0
Guztira	400	100


Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Lortutako ikasketen maila formalarekin batera, emakume horiek beste ikasketa edo heziketa batzuk egiteari dagokionez duten partaidetza ere aztertu behar da.

Hurrengo grafikoan ikusten denez, elkarriketaturiko emakume alargunen %36,1ek ikastaro edo heziketaren bat egin dute edo egiten ari dira.

Ehuneko hori halakoetan parte hartu ez duten emakumeen %63,9koa baino txikiagoa da; hala eta guztiz ere oso adierazgarria da egiten dituzten jarduerak eta euren partaidetza maila aztertzeko.

12. grafikoa: Egindako beste heziketa mota bat (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Emakumeon partaidetza izan duen ikastaro edo heziketa mota "beste batzuk" deritzon kategoriaren barruan dago, kasu guztien %50,7an. Ikastaro horiek honako hauek dira: joskintza, eskulanak, artisautza, pintura, etab.

Ikastaro edo heziketa horiek egiten dituzte neurririk handienez, eta eginkizun oso garrantzitsua dute emakume talde honentzat; izan ere, kasu askotan, halakoen bitartez emakumeek elkartze-munduan sartu eta etxetik kanpoko jardueraren bat egiten dute.


Helburua ez da josten, bordatzen, eskulanak egiten, margotzen eta abar egiten ikastea soilik; izan ere, ikastaro hauek laguntza psikologikoa eta harreman mailakoa ematen diete emakumeoi.

Bestalde, %20,8k informatikako ikastaroak egin ditu, eta %16k kirola egiten du.

Halaber, %10,4k hizkuntzak ikasi ditu edo ikasten ari da.

13. grafikoa: Egindako heziketa mota (%)





Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Heziketa edo ikastaroak egiteko erakundeei dagokienez, horiek gehienetan elkarteak dira (%55,6).

Hemen, elkarteek heziketako ekintzak eskaintzean eta ematean duten eginkizun garrantzitsua ikusten da.

Erakunde publikoek ere, batez ere udaletxeek, bertako Kultura Etxeen edo Emakumearen Sustapen Zerbitzuaren bitartez, ikastaroren edo heziketa motaren bat eskaintzen dute (%17,4).

%9,7 akademiaren batera joan da edo oraindik ere joaten da, eta %16,0k ikastaro hauek beste erakunde batzuen bitartez egiten dituzte.

27. taula: Heziketa egiteko erakundeak (%)

Kopurua


Ehunekoa

Elkartea	80	55,6
Udaletxea	25	17,4
Akademia	14	9,7
Beste batzuk	23	16,0
Ed/Ee	2	1,3
guztira	144	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Ikastaro horiek edo heziketa hori egiteko arazorik ote duten galdetzeko orduan, %16,6k baietz erantzun dute, eta %83,4k ezetz.

14. grafikoa: Heziketa ikastaroak egiteko zailtasunak (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004


Halakorik aurkitzen duten emakume alargunen kasuan, ezaugarri hauek ikusi dira: adina (%37,5), denborarik eza (%29,2), osasuna (12,5) eta, batik bat, aldagai garrantzitsutzat, ekonomia (%20,8).

Zailtasun hauen artean, aipagarria da arlo ekonomikoa, gainerako oztopoei dagokienez, azken horiek subjektiboagoak izan daitezkeelako. Hala eta guztiz ere, zailtasun ekonomikoen kasuan, emakume horiekin egindako foroetan adierazitakoaren arabera, sarritan ezin zaie aurre egin ikastaro batzuen edo horietarako materialen kostuei.

Eta, sarritan ikastaro edo heziketa ekintza horiek dirulaguntza eduki arren (batez ere, elkarteek edo udaletxeek eskainitako kasuan), emakume horien talde handi batek ezin ditu egin, eta euren partaidetza arlo ekonomikoak galarazten du.

Azkenik, eta puntu honi dagokionez, elkarrizketatu diren emakume alargunen %12,2 (halako ikastaroetara joan ez direnak) pozik joango litzateke ikastaroetara, eta %87,8k ez dute interesik.

15. grafikoa: Heziketa ikastaroak egin ala ez (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Ikastaroren bat egin nahi izateko arrazoiak era askotakoak dira; garrantzitsuenen artean, aipagarriak dira ikasteko beharrezana (%50) eta aktiboan egotea (%16,67).

Puntu honetan, gehien eskatzen diren ikastaroak honako hauek dira: informatika (%40), kirola (%20) edo kulturarekin erlazionaturik dauden gaiak (%13,34).

3.2.2. Bizkaiko emakume alargunen taldearen ezaugarri ekonomikoak

Ikerketa honetan, ikerturiko taldeak gehien aipatu duen alderdi nagusienetariko bat aldagai ekonomikoa izan da.

Aldagai hori, talde honetan, arazo edo oztopo nagusienetariko bat da, emakumeek alargun gelditzen direnean.

Gaur egun, kasurik gehienetan, emakumeen alarguntasunaren eraginez, ikuspegi ekonomikotik begiratuta, gauzak eskuratzeko ahalmena galtzen da, diru-sarrerak kasu askotan %50era baino gutxiagora murrizten baitira. Diru-sarrera horiek senarrarengandik edo horren pentsiotik iritsi dira, erretiraturiko pertsonen kasuan.

Jasotako diru-sarrerak murrizteko egoera hori ez ezik, esan behar da emakume bat alargun gelditzen denean, SOVI deritzona³ jasotzen badu, lanean badago edo erretirorik jasotzen ari bada, hori kendu edo murriztu egiten zaiola.

Arazo ekonomiko horixe da, agian, egindako ikerketa kualitatiboan gehien aipatu dena; izan ere, emakumeak alargun gelditzen direnean faktore asko egon arren, alarguntasun pentsioen murriztapenaren arazo horrek larritu egiten du edozein egoera, eta kasu batzuetan alarguntasunarekin erlazionaturiko beste arazo batzuk sortzen ditu: ondorio psikologikoak, oinarrizko gastuen murriztapena, enpleguaren bilaketa, ondasun pertsonalen salmenta, laguntza sozial publikora jo beharra, etab.

³ SOVIri dagokionez, esan behar da, legegintzako azken gertaeren arabera, hori ez zaiela kenduko berori jasotzen duten emakumeei, alargun gelditzen direnean.

"ekonomia eta bakardadea nagusia da....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

"gabeziak itzelak dira....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

"alokairuan edo hipotekan dauden kasuak, eta pentsioarekin ezin zaio horri aurre egin....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

".....depresiorik handiena sortzen duen arazoa ekonomia da,.....gainera behin-behinekotasunean gelditzen zara....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

"....garrantzitsuenetariko bat, mina alde batera utzita (horrek ez baitauka baremorik), ekonomia da....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

".....halako batean, herenarekin gelditu zara, eta gastuak lehengoak...." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

".....orain dela hilabete inguru alargun gelditu da eta 45.000 pezeta gelditu zaizkio; errenta ordaintzen ari da.....eta halako kasuak hemen hainbeste...." (Emakume Alargunen Ordezkaría)

".....50 urte, lau seme-alaba eta 29.000 pezetako pentsioa....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

"...ekonomiak murriztu egiten dira, baina gastuak ez,.....ez da bidezkoa, gehigarria delako.....nola gelditzen zaren....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

"....ekonomia altuko jendeak ere etxea saldu behar izan du, eta zerbitzu sozialetara jo....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

".....ni orain dela 15 urte alargundu nintzen, ordura arte ez nuen inoiz lanik egin, arazo ekonomikoa hortxe dago; ez dizute askorik ordaintzen gaztea zarelako, baina ezin duzu lanik egin" (Emakume Alargunak)

".....diruaren aldetik denok galtzen dugu erdia, maila ekonomikoa edozein izan arren; moldatu egiten zara bizimodura, zerotik hasi eta senar barik bizitzen ikasten duzu....." (Emakume Alargunak)

".....hartzen duzun pentsioa.....arazo larria da.....ni 5 seme-alabekin eta 19.000 pezetarekin, gizarte segurantzari ordaindu ez niolako....." (Emakume Alargunak)

".....gelditzen zaizunarekin nola bizi....dena ordaindu behar duzu lehengo moduan" (Emakume Alargunak)

".....bizitza arrunta izan duzu, eta halako batean, moztu egiten dizute.....bi gauza dira, senarraren hutsunea, seme-alabak ikasten, ondasun batzuk dituzu, baina saldu egin behar....." (Emakume Alargunak)

Arazo ekonomiko hori ulertzeko oinarria Espainiako eta, horrenbestez, Bizkaiko araudia bera da, gai honi dagokionez (jaraunspenak, pentsioak, etab.); gero, emakume alargunengan eragin zuzena duena ere badago.

Araudia honako hau da:

- 56-6-22ko Dekretua, laneko istripuen legeriari buruzko testu bategina onetsi duena, eta horren aplikaziorako araudia (15/7 EAO, eta akatsen zuzenketa 18/7 eta 3/9).

- Abenduaren 23ko 3158/1966 Dekretua, Gizarte Segurantzako Araubide orokorreko prestazio ekonomikoen zenbatekoa eta horiek jasotzeko baldintzak ezartzen dituen Araudi Orokorra onetsi duena (30/12 EAO).
- 67-2-13ko Agindua, Gizarte Segurantzako Araubide orokorreko heriotza eta biziraupen prestazioen aplikaziorako eta garapenerako arauak ezarri dituena (23/2 EAO).
- Ekainaren 23ko 1646/1972 Dekretua, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko prestazioen arloko ekainaren 21eko 24/1972 Legea aplikatu duena (28/6 EAO).
- 72-7-31 Agindua, ekainaren 23ko 1646/1972 Dekretua aplikatzeko eta garatzeko arauari buruzkoa (11/8).
- Azaroaren 16ko 2957/1973 Dekretua, Gizarte Segurantzaren Sistemako kotizazioen zenbaketari buruzkoa (27/11 EAO).
- Uztailaren 7ko 30/1981 Legea, Kode Zibilean ezkontzaren arauketa aldatu duena eta ezeztatze, banantze nahiz dibortzio kasuetan jarraitu beharreko prozedura zehaztu duena (20/7 EAO).
- Abenduaren 21eko 3255/1983 Dekretua, Meatzariaren Estatutua onetsi duena (4/1 EAO, eta akatsen zuzenketa 24/1 eta 4/2).
- 84-1-18 Agindua, 67-2-13 Aginduko bigarren artikuluko 3. zenbakia aldatu duena (25/1 EAO).
- Abenduaren 24ko 2621/1986 Errege Dekretua, Trenbide Langileen, Futbol Jokalarien, Merkataritzako ordezkarien, Toreroen eta Artisten Araubide Bereziak Araubide Orokorrean sartzeari buruzkoa; gainera, liburuen Idazleen

Araubidea Norberaren Konturakoak edo Autonomoak diren Langileen Araubide Berezian sartu da (30/12 EAO).

- 87/11/30 Agindua, abenduaren 24ko 2621/1986 Errege Dekretua babes ekintzaren arloan aplikatzeko eta garatzeko (11/12 EAO).
- Abenduaren 28ko 1670/1990 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren Sistemako pentsioak eta babes sozial publikoa duten beste prestazio batzuk 1991rako berriro baloratzeari buruzkoa (zazpigarren xedapen gehigarria) (29/12 EAO).
- Apirilaren 2ko 480/1993 Errege Dekretua, Toki Administrazioiko Funtzionarioen Gizarte Segurantzaren Araubide Berezia Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartu duena (3/4 EAO).
- 93-4-7ko Agindua, apirilaren 2ko 480/1993 Errege Dekretua garatu duena; azken horren bidez, Toki Administrazioiko Funtzionarioen Gizarte Segurantzaren Araubide Berezia Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartu da, kotizazioaren eta pentsioen ordainketaren arloan (12/4 EAO).
- Ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzako Lege Orokorreko Testu Bategina onetsi duena (153-159. artikulua indargetuta) (29/6 EAO).
- Uztailaren 15eko 24/1997 Legea, Gizarte Segurantzaren Sistema finkatu eta arrazionalizatu duena (16/7 EAO).
- Urriaren 31ko 1647/1997 Errege Dekretua, ekainaren 15eko 24/1997 Legeko alderdi batzuk garatzen dituena; azken hori, berriz, Gizarte Segurantzaren Sistema finkatzeari eta arrazionalizatzeari buruzkoa da (6. artikulua eta 2. xedapen iragankorra indargetuta) (13/11 EAO).

- Abenduaren 30eko 66/1997 Legea, neurri fiskalei, administratiboei eta ordena sozialekoei buruzkoa (31/12 EAO).
- Urtarrilaren 9ko 4/1998 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren Sistemako pentsioak 1998an berriro baloratzeari buruzkoa (zortzigarren, bederatzigarren, hamargarren eta hamaikagarren xedapen gehigarriak) (10/1 EAO).
- Azaroaren 27ko 15/1998 Errege Dekretua, lan merkatua hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa, egun zatizko lanari eta egonkortasuna sustatzeari dagokionez (28/11 EAO).
- Abenduaren 30eko 50/1998 Legea, neurri fiskalei, administratiboei eta ordena sozialekoei buruzkoa (32. art.) (31/12 EAO).
- Abenduaren 27ko 24/2001 Legea, neurri fiskalei, administratiboei eta ordena sozialekoei buruzkoa (34. art.) (31/12 EAO).
- Abenduaren 27ko 1465/2001 Errege Dekretua, heriotzaren eta biziraupenaren prestazioen araubide juridikoaren alderdi batzuk aldatzeari buruzkoa (31/12 EAO).
- Urriaren 31ko 1131/2002 Errege Dekretua, egun zatizko kontratua duten langileen Gizarte Segurantza eta erretiro partziala arautu dituen (27/11 EAO).
- Urriaren 31ko 1132/2002 Errege Dekretua, uztailaren 12ko 35/2002 Legeko manu batzuk garatu dituen; azken hori, berriz, erretiro sistema malgua eta apurka-apurkakoa ezartzeko neurriei buruzkoa da (27/11 EAO).
- Abenduaren 27ko 1425/2002 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren Sistemako pentsioak 2003rako berriro baloratzeari buruzkoa (1., 2. eta 5. azken xedapenak).

- Martxoaren 7ko 286/2003 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren arloko prestazioak onartzeko administrazio prozeduren ebazpenerako epeen iraupena ezarri duena (8/4 EAO).
- Abenduaren 10eko 52/2003 Legea, Gizarte Segurantzaren arloko xedapen bereziei buruzkoa (11/12 EAO).
- Abenduaren 26ko 1795/2003 Errege Dekretua, alarguntasun pentsioak hobetzeari buruzkoa (27/12 EAO).
- Urtarrilaren 9ko 2/2004 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren Sistemako pentsioak 2004rako berriro baloratzeari buruzkoa (10/1 EAO).

Araudi horrek markatzen du alarguntasunaren araubidea eta, batik bat, emakumeek alargundu ondoren jasotzen dituzten pentsioak.

".....ez dute ulertzen halako pentsio baxua zergatik kobratzen duten, Aldundiko laguntzarik zergatik jasotzen ez duten....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

".....paperak konpondu orduko denboratxoa joaten zen, eta, bien bitartean, bizi egin behar.....bankuak utzi zuen dirua....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

".....emakumeek, behin eta berriro esan dugunez, gehienetan ez dute %45arena ulertzen.....esaten diezu baina ez dute ulertzen....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)

".....egin dituzten igoerekin, alargunak ez dira argitzen....., informazio handia dago....." (Emakume Elkartearen Ordezkaría)



".....gutxi gorabehera, badakizu..... 45%....senarrak irabazten duenarena...." (Emakume Alargunak)

".....orain %52 kobratzen dugu, baina urte askotan %45....." (Emakume Alargunak)

".....alargunen gai hau apur bat ahaztuta dago, kotizaturikoaren %45 ordaintzen dizute, kale gorrian gelditzen zara....." (Emakume Alargunak)

"...oso goiz dela esaten dizute, 28 egun itxaron behar da paperak iritsi arte, eta, bien bitartean...." (Emakume Alargunak)

".....%70 seme-alabekin da....baina lanean hasi nintzenean %45era jaitsi zidaten..." (Emakume Alargunak)

Horrela, Gizarte Segurantzaren sistemak ezarritakoa erreferentetzat hartuta, alarguntasun pentsioen araubidea honelaxe laburbiltzen da:

Eragileak / baldintzak

Gizarte Segurantzaren Araubide orokorrean integraturik dauden, afiliaturik dauden eta altan edo altaren pareko egoeran dauden pertsonak, eskaturiko gutxieneko kotizazio aldia betetzen dutenak:

- *Heriotza gaixotasun arruntaren ondoriozkoa denean:*

500 egun, heriotza gertatu aurre-aurreko edo kotizatzeko betebeharra amaitu aurreko 5 urteko aldian, baldin eta eragilea altan edo kotizatzeko betebeharririk gabeko egoeran bazegoen.

Egun zatizko eta txandakako kontratua edo kontratu finko etena duten langileen kasuan, kotizazio aldiak egiaztatzeko, lan egindako orduen arabera

egindako kotizazioak soilik zenbatuko dira, lanordu arruntak eta osagarriak kontuan hartuta, eta horien baliokidetasuna kotizazioko egun teorikoetan kalkulatu da:

- Benetan lan egindako ordu kopurua zati 5 egingo da (urteroko 1826 orduen zenbaketaren eguneko baliokidea).
- 5 urteko aldia (500 egunak horren barruan egon behar dira) benetako lanaldia murriztearen proportzio berean handituko da, kasuan kasuko jarduerako ohiko lanaldiari dagokionez.
- Eguneko zatia egun osora asimilatuko da.

Heriotza istripuaren (lanekoa izan edo ez) edo laneko gaixotasunaren eraginezkoa denean, ez da kotizazio aldirik eskatzen.

Heriotzako laguntzarako ere ez da eskatzen aurretiazko kotizazio aldirik.

Heriotzaren garaian altan edo altara asimilatzeko moduko egoeran "ez dauden" pertsonak pentsiorako eskubidea eragingo dute, baldin eta gutxiez 15 urteko kotizazio aldia badute. Ez da inoiz ere 99-1- baino lehenagoko ekitaldietako zenbatekoak kobratzeko eskubiderik izango.

Suspertzeko dirulaguntzaren jasotzaileak.

Erretiroko pentsionistak, euren ordainketa modalitatean.

Ezgaitasun iraunkorra duten pentsionistak. Laneko istripuan edo laneko gaixotasunean hildakotzat hartuko dira egoera horien eraginez erabateko ezgaitasun iraunkorra edo elbarritasun handia onartuta dutenak.

Lana erretiroko pentsiorako eskubidearekin utzi duten langileak (ordainketako modalitatean), baldin eta hori eskatu barik hil badira.

Istripuaren eraginez (laneko istripua izan edo ez) desagerturiko langileak, euren heriotza dakarten egoeretan, baldin eta istripua izan eta hurrengo 90 egunetan horien berririk izan ez bada. Kasu honetan, ez da inoiz ere heriotzaren laguntza eskubiderik sortzen.

Erabateko ezgaitasun iraunkorreko pentsio eskubidea duten langileak, baldin eta kalte-ordain berezia aukeratu badute, 60 urtetik beherako pertsonen alde.

Ehunekoa

- Oinarri arautzailearen %52, orokorrean, eta ondore ekonomikoak 04-1-1etik aurrera.
- Oinarri arautzaile egokiaren %70, baldin eta pentsioa jasotzeko aldi osoan honako baldintza hauek betetzen badira:

1.- Pentsionistak familia zamak edukitzea. Familia zamak honako kasu hauetan egongo dira:

26 urtetik beherako seme-alabekin edo nagusiak baina ezgaiak diren seme alabekin edo harturiko adin txikikoekin bizitzea. Horri dagokionez, ezgaitasuna dagoela joko da %33ko edo hortik gorako elbarritasuna dagoela egiaztatzen denean.

Familia unitatearen errendimenduak, pentsionistarenak ere barne, unitate horren kide kopurutik zatituta; betiere, urteroko zenbaketan ez dute gaindituko indarreko lanbide arteko gutxieneko soldataren %75, une bakoitzean, aparteko bi ordainketen zati proportzionala salbuetsita.

2.- Alarguntasuneko pentsioa diru-sarreraren iturri nagusia edo bakarra izatea, eta baldintza hori bete egiten dela joko da pentsioaren urteroko zenbatekoa pentsionistaren diru-sarrera guztien %50etik gorakoa denean.



3.- *Pentsionistak urtero kontzeptu guztietan dituen errendimenduek ez gainditzea kontribuzioko pentsioen gutxieneko osagarrietarako (ekitaldi ekonomiko bakoitzean) ezarrita dagoen mugari honako hau batzearen emaitza: ekitaldi ekonomiko bakoitzean alarguntasuneko gutxieneko pentsioari pentsionistaren adinaren arabera dagokion urteroko zenbatekoa. 2004-1-1etik aurrera, diru-sarreraren muga haxe izango da:*

65 urterekin edo gehiagorekin: $5.915,49 + 5.764,64 = 11.680,13$ euro.

65 urte baino gutxiagorekin: $5.915,49 + 5.371,24 = 11.286,73$ euro.

Alarguntasuneko pentsioak, urteroko zenbakietan, eta pentsionistaren urteroko errendimenduek (bien batuketak) ezin izango dute gainditu aurreko paragrafoan adierazitako diru-sarreraren muga. Bestela, alarguntasuneko pentsioaren zenbatekoa murriztu egingo da, muga hori ez gainditzeko.

Eskaturiko hiru baldintzak aldi berekoak izan beharko dira. Horietariko bat galduz gero, %52ko ehunekoa aplikatuko da, baldintza betetzeari utzi eta hurrengo hilaren 1etik aurrerako ondoreekin.

Banatze judizialaren, dibortzioaren edo ezkontza ezeztatzearen kasuan, zenbatekoa proportzionala izango da hildakoarekin ezkondata bizi izandako denborarekiko.

Oinarri arautzailea

Modu desberdinean kalkulatzen da, eragilearen egoeraren (aktiboan dagoen langilea edo pentsionista) eta heriotzaren zergatiaren (gertakizun arrunta edo laneko gertakizuna) arabera.

- Erretiroko edo ezgaitasun iraunkorreko pentsionisten heriotza:
Oinarri arautzailea, izan ere, hildakoaren erretiroko pentsioa edo ezgaitasun iraunkorreko pentsioa kalkulatzeko erabili dena izango da, eta horri kasuan kasuko ehunekoa aplikatuko zaio. Emaitza handitu egingo da balorazio berrien

zenbatekoarekin, hau da, jatorrizko pentsioa eragin zen egunetik alarguntasuneko pentsioetarako egon diren balorazio berrien zenbatekoarekin.

Hildakoak erretiro partziala bazuen, kontuan hartuko dira egun zatiz lan egindako aldiari dagozkion kotizazio oinarriak, eta horiek aldi horretan "lanaldi osoan" lan eginez kobratuko zen zenbatekoaren %100eraino igoko dira.

- Aktiboan dauden langileen heriotza:

Gertakizun arrunten eraginezko heriotza: Oinarri arautzailea kalkulatzeko, interesatuak 24 hilabeteko aldiari izandako kotizazio oinarrien batuketari zati 28 egingo da. Aldi hori onuradunek aukeratuko dute, pentsioa eragin duen (heriotza) gertaera jazo baino lehenagoko 15 urteen barruan.

Altan edo antzeko egoeran dagoen langilearen heriotza, lanekoa ez den istripuren baten eraginez: Langileak, heriotzaren aurreko 15 urteetan, kotizazioko 24 hilabete jarraituko aldirik beteta eduki ezean, oinarri arautzaileak honako bi hauen arteko onena izango da:

Aurreko puntuan ezarritakoa.

Heriotzaren aurreko 24 hilabeteetan egondako indarreko gutxieneko kotizazio oinarrien batuketa 28rekin zatitzearen ondoriozkoa; horiek, berriz, hildakoak azkenean kontraturiko lanaldiari dagokion zenbatekoan hartuko dira.

Jarduera anitza: Araubide desberdinei egindako kotizazioak egiaztatzen direnean, eta horietariko batean pentsiorako eskubiderik ez badago, azken horretan egiaztatutako kotizazio oinarriak (jarduera anitzaren araubidean) pilatu egin ahal izango zaizkie pentsioa eragin duen araubidekoei, oinarri arautzailea kalkulatzeko; hala eta guztiz ere, oinarrien batuketak ezin izango du inoiz ere gainditu une bakoitzean indarrean dagoen gehieneko kotizazio muga.

Gizarte Segurantzako kuotak salbuestea: Gertakizun arruntak ez diren jarduera aldietan, kontratu mugagabea eta 65 urte edo gehiago duten langileen kasuan, benetako kotizazioko 35 urte edo gehiago egiaztatuz gero, honako arau hauek beteko dira:

Interesatuak kotizatzeke erabilitako oinarriak erabiliko dira, baldin eta horiek honako hau baino handiagoak ez badira: aurreko urteko kotizazio oinarrien batez bestekoa kontsumoko prezioen indizearen (KPI) batez besteko aldaketaren ehunekoan handitzearen emaitza, gehi ehuneko puntu bi.

Aitorturiko kotizazio oinarriak aurreko urtekoetakoak baino handiagoak badira (azken horiek 1. arauan ezarritakoaren arabera handituta), kotizazioko oinarritzat zenbateko hori hartuko da.

1. arauan aipaturiko batez bestekoa kalkulatzeko, jarduerari eta enpresari dagozkion kotizazio oinarriak hartuko dira (kotizazioa salbuesten dutenak), eta egiten ari denaren baliokidea den lanaldia hartuko da kontuan.

Aurreko urteko hileko guztietan kotizazio oinarririk egon ezean, orain dauden kotizazio oinarrien batez bestekoa hartuko da kontuan, eta hori hilabete kopuru egokiarekin zatituko da.

Kuoten salbuespenarekin lotutako jarduerarekiko kotizazio oinarririk egon ezean, interesatuak inoren kontura egindako lanen ondorioz (salbuespen hori hasi aurreko urtean egindako lanak) dituen kotizazio oinarriak hartuko dira kontuan, eta lanaldia kotizaziotik salbuetsita dagoenarekiko baliokidea izango da.

Aurreko urtean kotizazio oinarririk egon ezean, halakoak dituen lehenengo urteko kotizazio oinarriak hartuko dira; gainera, 1. arauan aipaturiko batez bestekoa kalkulatu eta lehenagoko ataletan aipaturiko arauak aplikatuko

dira. Batez besteko hori, berriz, aurreko urteko edo urteetako batez besteko aldaketaren ehunekoan handituko da, harik eta kuotak salbuesteko aldiari dagokion urtera iritsi arte.

Laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondoriozko heriotza: honako batugai hauek 12rekin zatitzearen zatidura izango da:

Langilearen eguneroko soldata eta antzinasuna, istripuaren edo gaixotasunaren eraginezko baxaren egunean, bider 365 egun.

Egun zatizko edo txandako kontratuen kasuetan, langileak emandako zerbitzuak egunerokoak ez direnean edo, izan arren, lanaldia irregularra edo aldagarria denean, eguneroko soldata astekoa edo hilekoa 7rekin edo 30ekin zatitzearen emaitza izango da, eta asteko edo hileko soldata, berriz, kontratuko lanorduen banaketaren arabera hitzarturik egongo da, aldi horietariko bakoitzerako.

Kontratu finko etenen kasuan, eguneroko soldata kalkulatzeko, langileak aldi horretan jasotako soldatak gertaera eragilearen eguneraino igarotako egutegiko ordu kopuruarekin zatitzearen emaitza izango da.

Aparteko ordainketak, hobariak edo partaidetza, zenbateko osoarengatik, istripuaren edo gaixotasunaren eraginezko baxaren aurreko urtean.

Istripuaren aurreko urtean jasotako ordainketa bereziak osagarriak eta aparteko orduen ordainketak aldi horretan benetan lan egindako egun kopuruarekin zatitzearen zatidura. Emaitza 273rekin biderkatuko da, baldin eta jarduera egindako lanegun kopurua txikiagoa ez bada, eta kasu horretan, berriz, kasuan kasuko biderkatzailea aplikatuko da.

Egun zatizko nahiz txandakako kontratuen eta kontratu finko etenen kasuan, interesatuak gertaera eragilearen aurreko urtean jasotako soldata osagarrien

batuketa aldi horretan benetan lan egindako ordu kopuruarekin zatituko da. Horren emaitza, berriz, 1826ri honako hau aplikatzearen ondoriozko zifrarekin biderkatuko da: kasuan kasuko jardueraren ohiko lanaldiaren eta kontratuan jasotakoaren arteko proportzionaltasun koefizientea.

Ordainketa

Pentsioa hilero ordainduko zaie onuradunei, urteroko aparteko bi ordainketekin; horiek ekainean eta azaroan ordainduko dira, laneko istripuaren eta laneko gaixotasunaren kasuan izan ezik, eta kasu horretan, urteko hamabi ordainketen barruan hainbanatuko dira.

Pentsioa, gutxieneko pentsioaren zenbatekoa ere barne, urte bakoitzaren hasieran baloratuko da berriz, urte horretarako ezarritako Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera.

Hileroko gutxieneko zenbatekoak bermatuko dira, onuradunaren adinaren eta familiako zamen arabera:

- 65 urteko titularra.
- 60-64 urteko titularra.
- 60 urtetik beherako titularra, familiako zamekin.
- 60 urtetik beherako titularra, familiako zamarik gabe.

Pentsioa zerga-ordainketara lotuta egongo da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) arautzen duten arauetan ezarritakoaren arabera; gainera, zergaren konturako atxikipenen sistema orokorrari lotuta egongo da, honako salbuespen honekin: terrorismoko egintzen eraginezkoa bada, salbuetsita egongo da.

Alarguntasuneko pentsioa *bateragarria* da onuradunaren laneko edozein errentarekin, baita erretiroko edo ezgaitasun iraunkorreko pentsioarekin ere (horretarako eskubidea edukiz gero).

04-1-1etik aurrera, eragilea altan edo horretara egokitzeko moduko egoeran ez dagoenean (hiltzeko unean), alarguntasuneko pentsioa *ez da bateragarria* alarguntasuneko beste pentsio batekin, Gizarte Segurantzaren barruko ezein araubidetan, araubide bakoitzean egiaztaturiko kotizazioak gutxienez 15 urtetan gainjartzen direnean izan ezik.

Berriro ezkontuta ere alarguntasuneko pentsioaren jasotzea mantentzeko kasuetan (eskatutako baldintza beteta), ezkontide berria hiltzearen ondorioz sor daitekeen alarguntasuneko pentsio berria *ez da bateragarria izango* lehen jasotako alarguntasuneko pentsioarekin edo pentsioekin, eta horietariko bat aukeratu beharko da.

Berriro ezkontzea. Hala eta guztiz ere, alarguntasuneko pentsioa mantendu ahal izango da, pentsionista berriro ezkondu arren, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- 61 urtetik gorakoa izatea eta erabateko ezgaitasun iraunkorreko edo elbarritasun handiko pentsioa ere onartuta edukitzea, edo %65etik gorako elbarritasuna egiaztatzea.
- Alarguntasuneko pentsioa pentsionistaren diru-iturri nagusia edo iturri bakarra izango da. Diru-iturri nagusia izateko, horren zenbatekoa pentsionistaren diru-sarrerara osoen %75era iritsiko da, urteroko zenbaketan.
- Senar-emazteek urteroko dirulaguntzak edukiko dituzte, edozein motatakoak, alarguntasuneko pentsioa ere barne, eta horiek bi aldiz handiagoak izango dira, une bakoitzean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata baino.

- Eragilearen heriotzaren erruduntasun adierazpena, epai irmoan.
- Heriotza.
- Istripuan desagerturiko langilea ez dela hil egiaztatzea.

Horren guztiaren ondorioz, gaur egun Espainiako estatuan kudeatzen diren alarguntasun pentsioen kopurua sortzen da.

Hurrengo taulan, aztertutako taldeari dagokionez (emakume alargunak) garrantzitsua den datu bat ikusten da; izan ere, alarguntasuneko kontribuzio-pentsioak jasotzen dituzten gizonen eta emakumeen arteko diferentzia handia da, eta halako pentsioak gehienetan emakumeek jasotzen dituzte.

Talderik ugariena 65-79 urte bitarteko emakume alargunena da, eta talde horren barruan ia milioi bat pertsona dago.

28. taula: Indarrean dauden kontribuzio-pentsioen banaketa Espainiako estatuan, sexuaren eta adinaren arabera (2002ko abenduaren 31)

	Gizonak	Emakumeak
15-34 urte	839	7.270
35-54 urte	22.040	133.354
55-64 urte	19.176	223.330
65-79 urte	55.390	919.661
79 urtetik gora	43.623	677.111

Iturria: INSS. 2003

Lehen esan dugunez, Espainiako estatuko emakume alargunen batez besteko adina 74 urtekoa da eta gizonena 71 urtekoa; horrenbestez, zentzuzkoa da alarguntasuneko pentsiorik gehienak 70 urtetik gorako pertsonetan biltzea.

Bizkaiko kasuan, alarguntasuneko pentsioak lurraldean kudeatzen diren pentsio guztien %28,6ra iristen dira; ehuneko hori, jakina, lurralde honetan bizi diren gizonen eta emakumeen kopuruaren araberakoa da.

29. taula: Bizkaiko Lurralde Historikoko alarguntasun pentsioen kopurua (2001)

	Kopurua	%*
Alarguntasun pentsioak	67.054	28,6

*Gainerako pentsio guztiekiko ehunekoa (erretiroa, ezgaitasuna,...)

Iturria: Eustat. 2003

Zifrei dagokienez, Bizkaia batez besteko pentsiorik handieneko lurraldea da (411,13 euro), gero Gipuzkoa dago (403,86 euro) eta hirugarrenez Araba (384,72 euro).

30. taula: Alarguntasuneko batez besteko pentsioa Lurralde Historikoetan (2001)

	Batez besteko pentsioa *

Araba	384,72
Bizkaia	411,13
Gipuzkoa	403,86

*euroak/ hileko

Iturria: Eustat. 2003

Beste alde batetik, alarguntasunaren pentsioa 298,68 eurokoa da gizonentzat eta 318,53 eurokoa emakumeentzat⁴.

Pertsonak laneko araubidearen arabera kontuan hartuta, hurrengo taulan ikusten da kopururik handiena Araubide Orokorraren barrukoen artean dagoena, eta batez besteko pentsiorik altuena ere horietatik dute, laneko istripuen ondoriozkoen ostean.

SOVI deritzona ia bi mila pertsonak jasotzen dute eta pentsioaren batez bestekoa 200 euro ingurukoa da.

31. taula: Alarguntasunaren kontribuzio-pentsioen indarreko banaketa, Bizkaian (2002ko abenduaren 31)

	Kopurua	Batez besteko pentsioa (euroak)
Araubide Orokorra	50.537	468,22
Autonomoen Araubide Berezia	6.937	325,07
Nekazaritzako Araubide Berezia (norberaren kontura)	2.207	223,70
Nekazaritzako Araubide Berezia (inoren kontura)	459	328,02
Itsasoko Langileen Araubide Berezia	2.892	413,15

⁴ INSStik lortutako zifrak. 2003

Ikatzaren Meatzaritzako Araubide Berezia	107	394,35
Etxeko Langileen Araubide Berezia	104	195,16
Laneko istripuak	2.503	521,93
Lanbideko gaixotasunak	391	438,61
SOVI	1.860	207,62

Iturria: INSS. 2003

Elkarrizketaturiko emakume alargunen kasuan, ia %100ek alarguntasuneko pentsioa jasotzen du.

%89,8arentzat, pentsio hori diru-sarrera bakarra da, eta horrez gain soldata bat ere baduten emakume alargunak %9,3 dira.


%0,7k laguntza pribaturen bat jasotzen du eta %0,2k laguntza publikoak jasotzen ditu.

67

Ikusten denez, pentsioa diru-sarrera ekonomiko bakarra da emakume guztien ia %90arentzat; Bizkaian, diru-sarrera horren batez bestekoa hileroko 350 eurokoa da; baliabide ekonomiko mugatu horiek behin-behinekotasun egoerak sortzen dituzte talde honen bizitza pribatuko eta sozialeko arlo desberdinetan.

Egoera horiei aurre egiteko, laguntza publikoen politikak sustatu behar dira; kulturaren, ezagupen ezaren, lotsaren, laguntza zehatzik ez egotearen eta abarren eraginez, halako laguntzak ez dira iristen talde horren zati handi batengana, eta horrela, behin-behinekotasun eta beharrian poltsak sortzen dira.

16. grafikoa: Diru-sarrera ekonomiko motak (%)



■ PENTSIOA ■ SOLDATA
□ LAGUNTZA PUBLIKOAK ■ LAGUNTZA PRIBATUAK

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Kasurik gehienetan, pentsioa diru-laguntza ekonomiko bakarra da; gainera, ehuneko hori handitu egiten da emakumeen adinak gora egin ahala. Horrela, 70 urtetik gorako emakume alargunek %98,8ko alarguntasun pentsioa jasotzen dute, eta 35-49 urte bitartekoek, berriz, %55,6koa baino ez dute jasotzen.

Soldataren kasuan ere, ehunekorik handiengan lan egiten dutenak emakume gazteak dira, eta horrela, pentsioa ez ezik soldata bat ere jasotzen dute.

Aipagarria da 50-69 urte bitarteko emakume alargunen %12 etxetik kanpo lan egitea.

32. taula: Diru-sarrera ekonomikoa eta adina (%)

	34 urtera arte	35-49 urte bitartean	50-69 urte bitartean	70 urte baino gehiago
Pentsioa	66,7	55,6	86,5	98,8
Soldata	33,3	44,4	12,0	0,6
Laguntza publikoak	0,0	0,0	0,5	0,0
Laguntza pribatuak	0,0	0,0	1,0	0,6

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Emakume horien alarguntasunaren urte kopurua ere jasotako dirulaguntza motan eragina duen aldagaia da. Orain dela 11-15 urtetik hona alargunak diren emakumeak dira pentsioa ez ezik soldata ere jasotzen dutenen arteko kopururik handienekoak (%16,3).

Pentsioa soilik jasotzen duten kategorien barruan, orain dela 15 urte baino gehiagotik hona alargunak diren emakumeak dira ehunekorik handiena dutenak (%94,9).

33. taula: Diru-sarrera ekonomikoaren mota eta alarguntasun urteak (%)

	1-5 urte	6-10 urte	11-15 urte	15 urte baino gehiago
Pentsioa	90,5	92,0	81,3	94,9
Soldata	8,6	7,1	16,3	5,1
Laguntza publikoak	0,0	0,0	1,3	0,0
Laguntza pribatuak	1,0	0,9	1,3	0,0

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

69

Etxe barruan seme-alabekin bizi diren emakume alargunak dira alarguntasun pentsioa soilik proportziorik handienez jasotzen dutenak.

Gurasoekin edo familiekin bizi diren emakumeak dira pentsioa ez ezik soldata ere jasotzen dutenen artean ehunekorik handiena dutenak (%20 eta %22,7, hurrenez hurren).

34. taula: Diru-sarrera ekonomikoaren mota eta bizikidetzaren unitatea (%)

	Aita/ama	Seme-alaba	Familiakoak	Beste batzuk
Pentsioa	80,0	86,6	77,3	100,0
Soldata	20,0	13,4	22,7	0,0
Laguntza publikoak	0,0	0,0	0,0	0,0
Laguntza pribatuak	0,0	0,0	0,0	0,0

pribatuak

--	--	--	--	--

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Alderdi ekonomikoa, horrenbestez, funtsezkoa da Bizkaiko emakume alargunaren egoera eta ingurua ezagutzeko, talde horren gainerako alderdi pertsonaletan eta sozialetan eragina duelako.

3.2.3. Bizkaiko emakume alargunen taldearen lanaren ezaugarriak

Aurreko kapituluarekin lotuta, emakume alargunen talde honen lanaren ezaugarriak ditugu.

Emakume alargunik gehienak behin-behinekotasun ekonomiko larrian gelditzen dira, eta horrela, sarritan etxetik kanpo joan behar izaten dira lanera:

".....irteera ematea, baina aurrera atera daitekeen jende gaztea dago.....alargun batzuek ez dute inoiz etxetik kanpo lanik egin, beste batzuek bai, egin dute, baina lana utzi eta orain birziklatu egin behar dira.....maila ertaineko edo LHko zikloetan....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

"..... emakume alargun gazte batzuek lan egin behar dute nahitaez,zuk pentsio txikia daukazu, eta lan egin behar duzu....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

" gutxi dira.....gazteak, gazteak,.....batzuek gainera haur txikiak dituzte eta lanean ari dira..." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

".....egoera horretan dauden alargunek.....lan egin behar dute nahitaez....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

"..batzuek goizean lan egin eta arratsaldean ikastaroak egiten dituzte.." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

".....herri honetan egin daitezkeen lanak, etxeak garbitu, haurrak zaindu, ezin duzu besterik egin..." (Emakume Alargunak)

"atariak garbitu baino ezin dut egin nik, nire prestakuntzarekin....." (Emakume Alargunak)

"....nik lan egiten nuen.....baina desberdina zen...." (Emakume Alargunak)

"dagoen lana egiten dut...garbiketarako egiten ditut....." (Emakume Alargunak)

"...lanean hasi behar duzu, dirua behar baituzu...emakume alargun gazteek gastu handiagoak dituzte eta gutxiago irabazten dute...." (Emakume Alargunak)

Halaber, kasu pertsonal bakoitza bakarra da, baina egoeren hiru tipologia bereiz daitezke, lan merkatuari dagokionez:

- Etxeko lanetan diharduten adin ertaineko emakumeak, seme-alabekin, ikasketarik gabe edo oinarrizko ikasketekin eta etxetik kanpoko lanetan esperientzia barik.


Sarritan, behin-behinekotasun egoera horren ondorioz, emakumeok etxetik kanpo lan egin behar izaten dute, horrek dakartzan sailtasunekin: adin

ertaineko emakumeak, heziketa berezirik gabeak, eta heziketa hori ezinbestekoa da lanpostua lortzeko (batez ere, pertsonen zaintza edo garbiketa); sarritan, "laneko behin-behinekotasun" handia egoten da.

- Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeak (gehienak gazteak; alarguntasunaren ondorioz, diru-sarrerak murriztu egin zaizkie; hala eta guztiz ere, lana mantendu dute. Emakume horientzako ondorioak ere handiak dira, baina beste maila batekoak, etxetik kanpo lan egiten ez duten emakumeei dagokienez.
- 60-65 urteko edo gehiagoko emakumeak. Lan merkatuaren integrazioa ia nulua da, batez ere emakume horien adinaren eraginez. Halako kasuetan, dirulaguntza kanpoko erakundeetatik edo familiaratik dator; bestela, gelditzen zaien pentsioarekin *moldatzen* dira; behin-behinekotasun horrek ondorioak ditu gauzak eskuratzeko ahalmenean eta eguneroko bizitzan. Behin-behinekotasuna eta beharrian batzuk bete ezin izatea (elikadura, aisialdia, etxeko zerbitzuak, etab.).

Inkesten bitartez bildutako datuetan oinarrituz ikusten denez, emakume alargunen %10,5 etxetik kanpo dabil lanean, eta beste %89,6 ez.

17. grafikoa: Etxetik kanpo lan egin edo ez (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Adinari dagokionez, ehunekorik handiengan lan egiten dutenak 35-49 urte bitarteko emakumeak dira, gainerako adin bitartekiko.

50-69 urte bitarteko emakumeen %13,5 etxetik kanpo dabil lanean.

34 urtetik beherako emakume alargunen %33,3 etxetik kanpo dabil lanean, eta ehuneko hori %1,9koa da, 70 urtetik gorako emakumeen kasuan.

35. taula: Etxetik kanpo lan egin edo ez eta adina (%)

	34 urtera arte	35-49 urte	50-69 urte	70 urtetik gora
Bai	33,3	44,4	13,5	1,9
Ez	66,7	55,6	86,5	98,1

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Oro har, eta emakumeei alarguntasuna heltzen zaien batez besteko adinaren eraginez, talde horren lan integrazioa zaila da, zailtasun hori eragiten duten bi aldagai biltzen direlako: emakumea izatea eta adina.

Horrela, eta Eustaten islaturiko datuekin konparatuz ikusten denez, 2003ko azken hiru hilekoan Euskadiko emakumeen arteko langabezia tasa gizonena baino handiagoa da (ia bikoitza).

36. taula: 16 urteko edo gehiagoko biztanleen jarduera eta langabezia tasa EAEn, generoaren arabera (IV. hiruh. 2003)

	Gizonak	Emakumeak
--	---------	-----------

Jarduera tasa	65,9	44,7
Langabezia-tasa	6,6	11,9

Iturria: Eustat. 2003

Bizkaian eta INEMek emandako datuen arabera, 2004ko II. hiruhilekoari dagokionez, ikusten da bertan inskribaturiko emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa dela, eta aipagarria da 45 urtetik gorako emakumeen taldea, talde hori guztiz ahula baita lan merkatuaren barruan.

37. taula: 16 urteko edo gehiagoko biztanleriaren tasa Bizkaiko Lurralde Historikoan, generoaren arabera (II. hiruh. 2004)

	Gizonak	Emakumeak
<25 urte	2866	2955
25-44 urte	9825	14605
>= 45 urte	7415	8365

74

Iturria: Eustat. 2003

Beste alde batetik, Bizkaiko okupazio tasa, 2003ko III. hiruhilekoan, 60,2koa izan zen (hiru lurraldeen arteko tasarik txikiena).

38. taula: 16 urteko edo gehiagoko biztanleriaren okupazio tasa, Lurralde Historikoen arabera (2003)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Okupazioa	68	60,2	66,9

Iturria: Eustat. 2003

Sexuaren arabera, okupazio hori apur bat handiagoa da gizonen artean, emakumeen artean baino, hurrengo taulan ikusten denez.

39. taula: 16 urteko edo gehiagoko biztanleriaren okupazio tasa, EAEn, generoaren arabera (IV. hiruh. 2003) (miletan)

	miletan
Gizonak	273,8
Emakumeak	182,2

Ituria: Eustat. 2003

Egindako inkestetako datuak erabiliz, esan daiteke lan egiten duten emakume alargunen %10,5 lanbide edo sektore jakinetan dabiltzala, esate baterako, garbiketan (%57,1), administrazioko lanetan (%11,9), klinikako laguntzan (%7,1), irakaskuntzan (%7,1) eta sukaldaritzan (%4,8).

Emakume horien kopururik handiena duen sektorea garbiketarena da, bai garbiketa enpresetan edo bai partikularren artean; sektore horrek ez du prestakuntza handiko eskulanik behar, langileak berehala hartzen ditu, baina ez ditu lan baldintza onak (soldatak, ordutegiak, Gizarte Segurantza, etab.).

40. taula: Emakume alargunen lanbideak (%)

	Kopurua	Ehunekoa
garbiketa	24	57,1
administrazioa	5	11,9
klinikako laguntza	3	7,1
irakaskuntza	3	7,1
sukaldaritz	2	4,8
haurtzaintza	1	2,4

joskintza	1	2,4
funtzio Publikoa	1	2,4
Ed/Ee	2	4,8
guztira	42	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Gainera, lan eskaintza bat edo bestea aukeratzea ez da ohikoena izaten; izan ere, hurrengo taulan ikusten denez, lanean dabiltzan emakume alargunen %89,3k beharizan ekonomikoa dauka; batez ere, alargun gelditu ostean lan merkatuan sartu behar duten emakumeen kasuan.

41. taula: Etxetik kanpo lan egiteko zergatiak (%)

	Kopurua	Ehunekoa
Beharizana	35	83,3
Atsegin izatea	2	4,8
Zerbait egitea/ denbora ematea	2	4,8
Ed/Ee	3	7,1
Guztira	42	100


76

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Bildutako datuen arabera, etxetik kanpo lan egiten ez duten elkarrizketaturiko emakume alargunak %90 ingurukoak dira; horiei lehenago lanik egin duten galdetzean, %50k baietz erantzuten du.

%50 horren barruan honako emakume hauek daude: beti lan egin dutenak, alargundu ostean lanean hasi direnak edo ezkondu nahiz seme-alabak eduki orduko lanean zebiltzanak.

18. grafikoa: Lehenago etxetik kanpo lan egitea (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Hemen, aldagai azaltzaile nagusia adina da, eta hurrengo taulan ere horixe ikusten da; izan ere, %30,2 dagoeneko ez dabil etxetik kanpo lanean, adinaren edo jubilaturik egotearen eraginez.

Halaber, adierazgarria da emakumeen %10ek ezin duela lanik egin osasun arazoen ondorioz (adinarekin erlazionaturiko arazoak).

Beste kasu bat, ezkongabetan lan egiten zuten emakume alargunena da (%33), ezkondu ondoren etxetik kanpoko lana utzi duten emakumeena.


42. taula: Lan egiteari uzteko arrazoiak (%)

	Kopurua	Ehunekoa
ezkontza	59	33,0
erretiroa	30	16,8
adina	24	13,4
osasuna	18	10,0
familia	10	5,6
seme-alabak	8	4,5
kanporatzea	6	3,4
lekualdatzea	4	2,1
nekatzea	3	1,6
alarguntzea	1	0,6
pertsonalak	1	0,6
gai politikoa	1	0,6
Ed/Ee	14	7,8
guztira	179	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Bestalde, orain etxetik kanpo lan egiten ez duten emakume alargunen %3,9 pozik ibiliko litzateke halako lanetan.

19. grafikoa: Etxetik kanpo lan egin nahi izatea (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

79

Arrazoi nagusiak honako hauek dira: beharrizan ekonomikoa (%35,8) eta jardueraren bat egitea edo astia ematea (%35,8).

43. taula: Etxetik kanpo lan egin nahi izatearen arrazoiak (%)

	Kopurua	Ehunekoa
beharrizana	5	35,8
zerbait egitea/ denbora ematea	5	35,8
hobetzea	1	7,1
pertsonalak	1	7,1
ezagupenak handitzea	1	7,1
poztasuna	1	7,1
guztira	14	100


Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Gainera, etxetik kanpo lan egin nahi duten emakume horiek diotenez (%81,8), lanean integratzeko zailtasunak dituzte.

Zailtasun nagusia adina da: %75.

Lana errazago aurkitzeko proposatzen diren soluzioen artean, honako hauek aipa daitezke: laneko orientazio handiagoa, adin nahiz egoera pertsonal jakineko emakumeentzako enplegu gehiago, etab.

20. grafikoa: Lana aurkitzeko arazoak edukitzea (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Horrekin batera, aldagai nagusia adina da, eta, horren eraginez, emakumeen %71,9k ez luke etxetik kanpo berriro lanik egingo. Beste arrazoi garrantzitsu bat osasuna da, %13,3aren kasuan.

44. taula: Etxetik kanpo lan egin nahi ez izatearen arrazoiak (%)

	Kopurua	Ehunekoa
adina	182	72,2
osasuna	33	13,1
gogorik eza	28	11,1
astirik eza	5	2,0
ilobak zaintzea	1	0,4
beharrizanik eza	1	0,4
betebehar familiarrak	1	0,4
lasaitasuna	1	0,4
guztira	252	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004



GAI MULTZOA: Astialdiarekin eta aisialdiarekin erlazionaturiko ezaugarrien azterketa

Ikerketaren barruan emakume talde honen bizitzaren barruko beste faktore garrantzitsu bat ere ikusi da: zer egin behar dute denborarekin, aisialdiko edo astialdiko jardueretan erabiltzeko?, norekin partekatu behar dute astialdi hori?, non?

Bileretan parte hartu duten emakume alargun askok esandakoaren arabera, faktore ekonomikoa ez ezik euren bizitzan badago beste hutsune handi bat ere: "bakardadea".

Bakardade hori orokorrean ulertzen da, eta, horri dagokionez, emakume alargunek hauxe sentitzen dute:

"ekonomia eta bakardadea nagusiak dira....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

"emakume alargun baten ez dauka lekuri inon. Emakume alargun bat lagunik gabe gelditzen da, beste bikoteekin irten gabe, gurasoekin...seme-alabei ere ez diezu oztoporik egingo...." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

".....senarra galtzeak hutsune handia sortzen du....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

" nire ustez, orain ez, ni neu behintzat arretaz ibiltzen naiz alargunik ote dagoen ikusteko.....orain, adineko jendea ere irteten da, alargun gelditu ondoren....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

".....bakarrik sentitzen naiz....." (Emakume Alargunak)

"...urteak aurrera joan ahala, hutsunea gehiago nabaritzen duzu.....batez ere seme-alabak joaten direnean....." (Emakume Alargunak)

".....orain berrogei urteko alargunen modukoak ez gara.....barruan daramazunak ez dio ezer....." (Emakume Alargunak)

".....taldekoen artean, alargun bakarra neu naiz eta oso txarto sentitzen naiz....." (Emakume Alargunak)

".....lagun taldea guztiz aldatzen da.....itsatsita-edo zaude.....ez zaude eroso....." (Emakume Alargunak)

"....gero eta gutxiago irteten zara, beste lagun batzuk bilatzen dituzu....." (Emakume Alargunak)

Egoera pertsonal hori emakume alargunen alderdi psiko-sozialean oinarritzen da batik bat.

Elkarrizketaturiko emakumeen beste sintoma batzuk psikologikoak dira (depresioak, antsietatea, kalera irteteko gogorik eza, antzinako lagunekin egoteko gogorik eza, bakardade sentimenduak, etab.), batez ere alarguntasunaren hasierako uneetan.

Denborarekin, arlo batzuetan lehengo ohiturak berreskuratu eta astialdiko nahiz aisialdiko jarduerak egiteko zein partekatzeke beste modu batzuk bilatzen dira.


Hurrengo grafikoan ere horixe ikusten da; bertan, elkarrizketaturiko emakume alargunik gehienek egiten dituzten astialdiko eta aisialdiko jarduerak agertzen dira.

Gehien egiten diren jarduerak honako hauek dira: lehenengo eta behin pasioan ibili, bigarrenaz lagunekin nahiz familiakoekin egon, hirugarrenez telebista ikusi eta laugarrenez elkarteetan parte hartu.

Jarduera horien artean banakakoak (adibidez, irakurri, musika entzun edo telebista ikusi) eta taldekoak bereizten dira; azken horien artean, aipagarriak dira ikastaroak egitea, elkarteetan parte hartzea, lagunekin nahiz familiakoekin biltzea, kirola egitea, etab.

Halaber, banaka eta taldeka egin daitezkeen jarduerak ere badira: pasioan ibili, zinera, antzerkira edo dantzara joan, ikuskizun kulturaletara joan, bidaiatu, etab.

21. grafikoa: Aisialdiko/astialdiko jarduera mota (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Azken batean, garrantzitsuena etxetik kanpora ateratzen zaituzten eta bizitza aktiboa eragiten dizuten jarduerak edukitzea da, batez ere beste pertsona batzuekin erlazionatzeko jarduerak edukitzea:

".....harrerako talde bat sortu dugu, irteteko edo kafea hartzeko dei egiten duten emakumeak,.....ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan irteten hasi, eta hortik taldeak sortzen dira,....."
(Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

"batzuk zinera doaz, beste batzuk dantza egitera,....."
(Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

".....adin batera iritsitakoan jubilatuen klubera....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

"...zuk gauzak argi eduki arren, gizarteak bultzatu egiten zaitu eta.....bata edo bestea ezagutzen duzu, etxetik atera eta klubera joaten zara...." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

" afari bat egiten baduzu, bazter guztietatik agertzen dira.....bakardadea....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

".....alargun askok ez dute nora joanik....harremanak edukitzen dituzu...lagunak egitea ona da....." (Emakume Alargunak)

"....gu margolanen taldera.....hileroko astearte guztietan, kafea hartzera joaten gara.....apur bat galduta zebilen bat taldean sartu da...." (Emakume Alargunak)

Adinak, osasun egoerak, etxetik kanpo lan egiteak edo ez egiteak, laguntza eman behar izateak (esate baterako, ilobak zaintzen dituzten emakumeak) eta diru-sarrera ekonomiko nahiko handiak edukitzeak eragina dute honako hau egiteko orduan:

- Adinaren edo osasunaren eraginezko jarduera batzuk egin ahal izatea.

- Jarduera jakinak egiteko astialdi handiagoa edukitzea.
- Astialdiko eta aisialdiko jardueretarako baliabide nahikoa edukitzea.

Jarduera horietariko bakoitzean erabilitako denborari dagokionez, elkarriketaturiko emakume alargunek gehien egiten dituztenak pasioan ibiltzea eta lagunekin nahiz familiakoekin biltzea dira.

%49,1ek elkarteren batean parte hartzen du eta %55,1ek telebista ikusten du sarritan.

Urtean behin gehien egiten diren jarduerak bidaiatzea (%23,1) ikuskizun kulturaletara joatea eta elkarteren batean parte hartzea (%11,8) dira.


45. taula: Aisialdiko-astialdiko jardueran emandako denbora (%)

	Egunero	Asteburuetan	Oporretan	Urtean noizean behin	Inoiz ere ez
Kirola	23,9	0,3	0,3	1,8	73,8
Elkartea	49,1	1,0	0,0	11,8	38,1
Ikastaroak	22,0	0,3	0,0	6,0	71,7
Ikuskizun kulturalak	14,2	2,4	0,3	11,8	71,1
TB/bideoa ikustea	55,1	6,0	0,0	3,1	35,7
Paseatzea	70,9	3,9	1,0	8,7	15,5
Bidaiatzea	12,3	3,4	4,7	23,1	56,4
Zeinea/antzerkia/dantza	10,2	4,2	0,8	9,2	75,6
Irakurtzea	32,3	6,3	0,5	2,1	58,8
Lagunak eta familia	61,7	4,2	1,0	3,1	29,9
Musika entzutea	23,6	2,1	0,0	2,9	71,4
Beste batzuk	5,8	0,5	0,0	1,0	92,7

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Emakume alargunek, elkarten barruan, aisialdiko eta astialdiko jarduera jakinak egiten dituzte gehien bat: ikastaroak egin, ikuskizun kulturaletara joan, kirola egin edo bidaiatu.

22. grafikoa: Elkartean egiten diren edo ez diren aisialdiko/astialdiko jarduerak (%)




Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

87

Emakume alargunekin aisialdia eta astialdia partekatzen duten pertsonak edo erakundeak honako hauek dira: familia (%39,9), elkarteko kideak (%30,8) eta lagunak (%24,6).

Elkartetean parte hartzen duten emakumeen zirkulua oso garrantzitsua da talde honentzat, eta ehuneko garrantzitsua dauka euren gizarte inguruan eta aisialdiko nahiz astialdiko jarduerak egiteko orduan.


23. grafikoa: Astialdiko/aisialdiko jardueretan lagun dituen pertsonak (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Elkarrizketaturiko emakumeen %78,5ari, erakundeek edo elkarteek eskainitako aisialdiko eta astialdiko jardueri buruzko informazioa heltzen zaie.


24. grafikoa: Aisialdiko/astialdiko jardueri buruzko informazioa (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

%85,0k eskaintzen diren astialdiko eta aisialdiko jardueri buruzko informazioa lortzeko bideak ezagutzen du, eta %15,0k ez.

25. grafikoa: Aisialdiko/astialdiko jardueretarako bideak ezagutzea (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Ezagutzen eta erabiltzen dituzten bideen artean, aipagarria da elkarteen eginkizuna, %57,3arekin.

Bigarrenez, propaganda dago, batez ere udalerrri mailakoa (%14,1), eta gero, erakundeek egindako propaganda (%14,1).

Kasu honetan ikusten denez, elkarrizketaturiko emakume alargunen taldeentzat, gaiari buruzko informazio iturri nagusia elkarteek osatzen dute; halaber, esan daiteke, orokorrean informazio ona duen eta egiten diren jardueretan interesa duen taldea osatzen dutela.

46. taula: Aisialdiko/astialdiko jardueri buruzko informazioa lortzeko bideak (%)


	Kopurua	Ehunekoa
Elkarteak	238	57,3
Propaganda	66	14,1
Erakundeak	63	13,5
Irratia/TB	22	4,7
Beste batzuk	19	4,1
Prentsa	17	3,6
Ezagunak	13	2,7
Guztira	468	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

%37,9k zailtasunak ditu aisialdiko eta astialdiko jarduerak egiteko, eta zailtasun nagusia ekonomikoa da (%58,9)

26. grafikoa: Aisialdiko/astialdiko jarduerak egiteko zailtasunak (%)

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004



Zailtasun hori lehenagoko kapituluetan ere aipatu dugu; arazo horrek beste arlo batzuetan era eragina dauka, baina aipagarria da, jarduera batzuetan parte hartzea (ikuskizun kulturalak, ikastaroak, kirola, bidaiatzea, ibilaldiak, etab.) terapia ona baita, eta gainera, emakume alargunei aktiboan jarraitzeko adorea ematen baitie.

Beste zailtasun batzuk (%36,4) honako hauek dira: astirik eza (batik bat, etxetik kanpo lan egiten duten edo familia zamak dituzten emakumeen kasuan), osasuna edo adina. Horri dagokionez, adina zenbat eta handiagoa izan, jarduera maila orduan eta urriagoa izaten da.

47. taula: Aisialdiko/astialdiko jarduerak egiteko zailtasun mota (%)

	Kopurua	Ehunekoak
Ekonomikoak	89	58,9
Astirik eza	55	36,4

Laguntzailerik eza	4	2,6
Informaziorik eza	2	1,3
Eskaintza urria	1	0,8
Guztira	151	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Emakume alargunek pozik egingo lituzketen aisialdiko eta astialdiko jardueren artean, bai egiten ez dituztelako edo bai sarriago egin gurako lituzketelako, honako hauek daude: bidaiatu (%39,8) eta ikuskizun kulturaletara joan (%11,7).

Laguntzak edo dirulaguntzak eduki arren, bi jarduera nekez egiteko modukoak dira, emakume alargun askoren ekonomiaren ikuspegitik, nahiz eta horiek egiteko gogoia eduki, kostu handikoak baitira.

48. taula: Sarriago egingo lituzketen astialdiko/aisialdiko jarduerak (%)

	Kopurua	Ehunekoak
Bidaiatzea	142	39,9
Ikuskizun kulturalak	45	12,6
Paseatzea	38	10,7
Biltzea	36	10,1
Kirola egitea	33	9,3
Ikastaroetara joatea	21	5,9
Zinera joatea	12	3,4
Irakurtzea	11	3,1
TB ikustea	6	1,7
Musika entzutea	4	1,1
Beste batzuk	8	2,2
Guztira	356	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004



GAI MULTZOA: Elkartze-egiturarekin erlazionaturiko ezaugarrien azterketa

Puntu honetan ikusiko dugunez, elkarte guztien funtsa ardatz batzuek egituratzen dute, eta elkartze-mugimenduaren oinarria horien inguruan euskarritzen edo eratzen da; emakumeen elkarteen kasuan, ardatzok honako hauek dira:

- Emakumeen taldearen ideia, egoera edo beharizan komunak.
- Gizartearen eta inguruaren barruko gainerako kideei horiek jakinarazi beharra eta horren garrantzia.
- Gizartearen jabetzea eta sentibilizazioa, emakumeen askapenaren helburuei dagokienez.
- Emakumeen helburu guztiak lortzeko behar diren neurrien errebindikazioa, instantzia egokietan; horrela, kideak eta talde osoak ere eskuratu diren lorpen sozialen hobaria jasoko dute.

Horrela, Bizkaiko Emakumeen Elkarteetatik emakume alargunen talde horrekin lan egiten da, arlo desberdinetan oinarrituz:

"Emakume guztiakin lan egiten dugu integrazioan.....garrantizkoa da emakumeak ghettoetan ez sartzeara....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkarria)

"....laguntza psikologikoa daukagu eurentzat eta seme-alabentzat.....baita abokatu bat ere....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkarria)



".....bidaietarako eskatzen dugu, ahalik eta dirulaguntza gehien lortzeko, txango txikiak egin eta horietarako laguntza lortzen dugu....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

"...ez da interesgarria alargunen jarduerak egotea.....hobe da denetarik egotea....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

"....lehen alarguna etxean gelditzen zen, orain zentroetara edo elkarteetara joaten da..." (Emakume Alargunak)

".....denetarik etortzen da....arazo ekonomikorik gabeko adineko emakumeak, irteera kulturalak edo aisialdikoak ote ditugun ikustera datozen alargunak.....eta, gero, arazo ekonomiko larriak dituzten alargunak, eta horiek era guztietako laguntzak eskatzen dizkigute: ekonomikoa, laguntza sozialetarako laguntasuna,.....laguntza emozionala,.....alboko lokala ere irekitzen dugu kartetan jolasteko, telebista ikusteko, kafea hartzeko....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

Une honetan, Bizkaian 198 elkarte daude (emakumeen elkarteak) eta horiek era desberdineko helburuak dituzte⁵. Elkarteek, denborarekin, euren jarduketa aldatu egin dute, eta errebindikaziotik ekintzara igaro dira, eskubideak eskatuztik zerbitzuak eskaintzera, eta horrela, nolabait ere bete egin dute erakundeek eta administrazioek bermatu beharrekoa.

Azken batean, emakumeen elkarteak ugaritu eta dibertsifikatu egin dira, eta euren errebindikazioak eta eskariak zehaztu egin dituzte. Horrela, Laguntzako elkarteak sortu dira, arazo zehatzei erantzuna emateko (esate baterako, bananduriko emakumeak, dibortziatuak, alargunak, tratu txarrak izan dituztenak, eraso

⁵ Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen elkarten Direktoriotik ateratako zifra; hori Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusiak egin du 2003an.

sexualak jaso dituztenak, etab.), baita kultura-elkarteak, elkartasun-elkarteak, elkarte korporatiboak eta abar ere.

Horren adibidetzat, Bizkaiko emakumeen elkartze-egitura daukagu; Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun Unitateak gai honi buruz argitaraturiko datuetan ikusten denez⁶, elkarte horiek era askotako jatorriak dituzte; aipagarriak dira emakumeen interesak nahiz beharrizanak betetzeko sortu direnak (%47,4), baita horien eskubideak errebindikatzeko sortu direnak ere.

Halako elkarten beste jatorri bat, izan ere, erakundeek antolaturiko ikastaroak edo topaketak egitea da (35,1).

49. taula: Emakumeen elkarteak sortzearen arrazoia (%)

	Ehunekoa
Emakumeen interesak eta beharrizanak betetzea eta eskubideak errebindikatzea	47,4
Erakundeek antolaturiko ikastaroak edo topaketak	35,1
Lehenagoko taldeak (ikasleak, lagunak, sindikatua,...)	15,8
Ed/Ed	1,8
65 urtetik gorakoak	13,3

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2001

Elkarte horien helburuen artean, honako hauek dira aipagarrienak: emakumeen sustapena arlo desberdinetan (%36,8), emakumeen sustapena arlo sozio-kulturaletan (%21,1), heziketa (%19,3) eta emakumeen laguntza juridikoa, psikologikoa edo lanekoa (%19).

⁶ Ibidem. 13. or.

50. taula: Bizkaiko emakumeen elkarteen helburuak (%)

	Ehunekoak
Emakumeen sustapena arlo desberdinetan	36,8
Emakumeen sustapena arlo sozio-kulturaletan	21,1
Laguntza juridikoa, psikologikoa edo lanekoa emakumeei	19,0
Emakumeen heziketa	19,3
Emakumeen eskubideen errebindikazioa	3,5

Iturria: Aukera Berdintasuneko Unitatea. Bizkaiko Foru Aldundia. 2001

Helburuen dibertsitate hori, bestalde, elkarteok lan egiteko jardueretan edo jarduketa eremuetan ikusten da: kultura, eskulanak nahiz artisautza, osasuna, astialdia, hezkuntza, etab.; kasu askotan, gainera, elkarte berberaren barruan jarduera desberdinak garatzen dira.

96


51. taula: Bizkaiko emakumeen elkarteen jarduketaren eremua arloka (%)

	Ehunekoak
Kultura	49,1
Eskulanak edo artisautza	15,8
Osasuna	12,3
Astialdia	10,5
Hezkuntza	10,5
Laguntza soziala	8,8
Arlo ideologikoa	7,0
Kirolak	5,3
Komunikazioa	5,3
Beste batzuk	3,6
Ed/Ee	5,3

Iturria: Aukera Berdintasuneko Unitatea. Bizkaiko Foru Aldundia. 2001

Beste datu adierazgarri bat elkarte horien kokalekua da; horien %32 Bilbon kokaturik daude eta gainerako %68, berriz, Bizkaiko udalerrri batzuetan.

27. grafikoa: Bizkaiko emakumeen elkarten banaketa geografikoa (%)



Iturria: Aukera Berdintasuneko Unitatea. Bizkaiko Foru Aldundia. 2001

Elkarteetan dauden emakumeen batez besteko adina adierazgarria da; izan ere, emakumerik gehienek 36-50 urte bitartean eta 50 urte baino gehiago daukate; azken adin horretan kokaturik daude emakume alargunik gehienak.

52. taula: Elkarturiko emakumeen batez besteko adina (%)

	Ehuneko
25 urtetik behera	5,11
26-35 urte	14,47
36-50 urte	38,79
50-65 urte	28,33
65 urtetik gora	13,30

Iturria: Aukera Berdintasuneko Unitatea. Bizkaiko Foru Aldundia. 2001.

Jarduketaren eremu geografikoa elkartea daukan udalerrria bera edo hurbileko udalerrria izaten da (%50,9). Horrenbestez, orokorrean, herri bateko edo inguruko herrietako emakumeen arteko eragina duten elkarteak dira.

53. taula: Bizkaiko emakumeen elkarten jarduketa geografikoaren eremua (%)

	Ehunekoak
Udalerrria-udalerrriak	50,9
Probintzia	15,8
Auzoa	14,0
Autonomia Erkidegoa	7,0
Nazioartea	7,0
Ed/Ee	5,3

Iturria: Aukera Berdintasuneko Unitatea. Bizkaiko Foru Aldundia. 2001.


Emakumeen elkarten jarduerak eta jarduketa eremuak ugariak dira; halaber, emakume alargunen taldearen kasuan, egiten diren jarduera nagusiak honako hauek dira: astialdiarekin lotutakoak (%25,6), adibidez, irteerak nahiz txangoak, bazkariak, dantzak, bidaiak, mahaiko jolasak, hizketaldiak, etab.

Kulturarekin lotutako jardueren kopurua %21,2koa da; esate baterako, museoen, erakustaldien nahiz monumentuen bisitaldiak, antzerkia, etab.

Eskulanak garrantzitsuak dira talde horrentzat, eta talde barruko kideen %18,1ek parte hartzen du horretan. Izan ere, trebetasun jakinak ikasten dira, eta gainera, halako ikastaroak eginez, emakume asko elkarteetan sartzen dira eta ordura artekoa ez den beste zirkulu batean integratzen dira.

Egiten diren beste jarduketa batzuk hezkuntza eta heziketa dira (%8,3), baita laguntza sozialeko jarduerak ere (%7,3).

28. grafikoa: Elkartean egiten den jarduera mota (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

".....hizketaldi edo txangoren bat egiten dugu.....baita eskulanak ere,..... larunbat eta igandeetan kartetan egiten dugu...."
(Emakume Alargunak)

".....ikastaroetara ez da alargun askorik etortzen, gehienak gimnasiara etortzen dira, edo ibilaldiren edo bazkariren bat dagoenean....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

".....informazioko eta oinarrizko laguntzako elkarte da....."
(Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

" Hitzaldiren bat eman edo txangoren bat egiten dugu....ahal duguna egiten dugu emakumeengatik....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

"...ez dute ezer jakin nahi hitzaldiei eta ikastaroei buruz, gehienbat kartak nahiz ibilaldiak atsegin dituzte,....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

"....gehienek ikastaroren bat egin nahi dute.....batzuk bidaietara baino ez doaz....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

"....eurek nahi dutena elkartearekin kontakturik ez galtzea da, elkarrekin hitz egitea...." (Emakumeen Elkartearen Ordezkaría)

Elkartearen hurbiltzeko arrazoiak era askotakoak dira; hemen, alargundu baino lehen parte hartzen zuten eta alargundu ostean sartu diren emakumeak bereizten dira.

Horrela, lau arrazoi nagusi aipa daitezke: etxetik irten eta beste emakume batzuekin (alargunak edo ez) harremanak eduki nahi izatea (%23,3); lagunak elkartearen sartzeko edo bertan eskainitako jardueraren bat egiteko adorea ematea (%22); alargun gelditzea (%7,8) eta laguntza lortzea (%5,5).

54. taula: Elkartzeko arrazoiak (%)

	Kopurua	Ehunekoa
harremanak	93	23,3
lagunak	88	22,0
alarguntasuna	31	7,8
jarduerak	26	6,5



laguntza	22	5,5
bakardadea	17	4,3
familiakoak	8	2,0
heziketa	8	2,0
zerbait egitea	8	2,0
ezagunak	5	1,3
jakingura	3	0,8
laguntzea	2	0,5
derrigorrez	2	0,5
elkartzea	2	0,5
erretiroa	1	0,3
pertsonalak	1	0,3
prentsa	1	0,3
lekualdatzea	1	0,3
Ed/Ee	81	20,3
Guztira	400	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

".....senarrak bizirik zeudela ere irteten ez ziren emakumeak, eta orain irten eta elkarteetako jardueretan parte hartzen dute...."
(Emakume Alargunak)

"....ni bi urtetan egon nintzen etxetik irten barik, eta alabak eraman eta inskribatu egin ninduen.....gimnasian,...eta joaten hasi nintzen....." (Emakume Alargunak)


"....elkartera dei egiten dute, bakarrik daudela esanez, eta guk laguntza eskaintzen diegu,.....eta integratu egiten dira....."
(Emakume Alargunak)

"....ni ez nintzen elkartera joan zerbait ematera,beharrizana nuelako joan nintzen.....psikologoak hauxe esan zidan.....eta josten hasi nintzen, eta memoria hobetzen....." (Emakume Alargunak)

Oro har, elkarteren batean partaidetza edukitzeari buruzko pertzepzioa positiboa da emakume ia guztientzat.

Elkarrizketaturiko emakume alargunen kasuan, %81,5aren iritziz, elkartean egoteak eragina izan du euren bizitza pertsonalean eta sozialean.

29. grafikoa: Elkartean egotearen eragina (%)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Elkartuta egotearen ondorioak oso desberdinak dira, baina puntu komunak ikusten dira elkarrizketaturiko emakume alargunen artean.

Emakumeen %37,6aren ustez, gauza positiboa izan da euren bizitzan, eta alarguntasunaren ondorio psikologiko eta sozial batzuk gainditzeko laguntza eman die.

Gainera, emakumeen %44,7arentzat, lagungarria izan da harremanak edukitzeko eta etxetik irteteko; gainera, euren egoeran edo beste egoera batzuetan dauden beste emakume batzuk ezagutu dituzte, eta horrela, esperientziak eta kezak

partekatu dituzte; gainera, elkarteko jarduerak gainditzen dituzten lagun-taldeak sortu dira.

Talde horrek adierazitakoaren arabera, elkartuta egotearen beste ondorio batzuk ikastea edo heztea dira (%4,7).

55. taula: Elkartean egotearen ondorioak (%)

	Kopurua	Ehunekoak
harremanak	126	44,7
positiboa	106	37,6
ikastea/heztea	13	4,7
jarduerak egitea	9	3,2
informazioa	6	2,1
denetarik	2	0,7
astia ematea	2	0,7
jendeari laguntzea	1	0,4
eskubideak	1	0,4
aldarteak	1	0,4
bidaiatzea	1	0,4
Ed/Ee	13	4,7
Guztira	282	100

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Emakumeen talde honen iritziz, elkarteetan parte hartzeak hauxe eragin du:

".....aldaketa oso onak.....aldaketa ikusten duzu.....behea jota dagoen emakume bat iritsi eta, handik bost hilabetera, beste pertsona bat da, bizitza beste modu batera ikusten du, ilusio handiagoa dauka, alargun gelditzean bizitza ez dela amaitzen ulertzen du....oso positiboa da....." (Emakumeen Elkartearen Ordezkarria)

".....ekarpen handia egiten du alderdi askotan; lehenengo eta behin, emakumeen inguruan egotean informazioa daukazu, lagunak



*egiten dituzu, zerbitzu sozialei buruzko informazioa lortzen duzu,
.....” (Emakumeen Elkartearen Ordezkarria)*

*“...burugogorra izan arren, gizarteak bultzatu egiten zaitu eta
.....bata edo bestea ezagutzen duzu, etxetik ateratzen zaitu, klubera
ateratzen gara” (Emakumeen Elkartearen Ordezkarria)*

*“ niri bakardadean lagundu dit (elkartea).....elkartean urteetan
egon arren....” (Emakume Alargunak)*

*“ etxetik irteten zara, boluntarioen artean ere banago, eta horrek
poza ematen du.....” (Emakume Alargunak)*

Hain zuzen ere, emakume horien iritziz, emakumeen elkarteek euren taldearentzat duten eginkizuna hauxe da: jendea ezagutzea (%32,3), aisialdiko nahiz astialdiko jarduerak egitea (%29,3), laguntza psikologikoa ematea (14,4), euren eskubideak defendatzea (%14,4) eta informazioa ematea (%8,3).

56. taula: Emakumeen elkarten eginkizuna (%)

	Kopurua	Ehunekoak
Jendea ezagutzea	200	32,3
Aisialdiko jarduerak egitea	179	28,9
Eskubideak defendatzea	90	14,5
Laguntza psikologikoa	89	14,4
Informazioa	53	8,6
Beste batzuk	8	1,3

Guztira	619	100
----------------	-----	-----

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusia. 2004

Talde honen ustez, euren egoeran funtsezkoa da emakumeen elkartean parte hartzea, eta horiek funtsezko eginkizuna eta eginkizun aktiboa dute, talde horri laguntza emateari dagokionez, euren bizitzako alderdi desberdinetan: alderdi pertsonalean eta sozialean.

LABURPENA ETA ONDORIOAK

Aurreko kapituluetan aurkezturiko emaitzetan eta azterketetan oinarrituz, eta azken hausnarketaz, ondorio batzuk atera nahi ditugu, horiek adierazgarriak baitira Bizkaiko emakume alargunen egoeraren ikuspegi orokorra edukitzeko orduan; gainera, abiapuntutzat balioko dute, egoera hori hobetzeko jarduketak proposatu ahal izateko.

Ondorio horiek azaldu baino lehen, esan behar da ikerturiko emakume taldearen barruan, elkartze-egituran parte hartzen duten emakumeak sartu direla, eta kontsultaturiko taldea 400 emakumek osatzen dute; horrela, ondorioak arlo desberdinetan atera (sozio-demografia, mendekotasuna, heziketa, ekonomia, lana, aisialdia/astialdia, elkartze-egitura) eta talde horren ohiko profila zehaztu ahal izan dugu.

106

Emakume alargunaren profila

Adin ertaina-altua

Bakarrik bizi da etxean

Osasun arazoren bat dauka

Ikasketa maila ertaina-baxua

Diru-sarrera ekonomikoak: pentsioa

Bizitza pertsonal eta sozialarekin jarraitzeko

Emakume horiei egindako kontsultaren eta ondorengo azterketaren eraginez, ikerturiko arloak erreferentziatzat hartuta, esan daiteke lorturiko arazo eta

ondorioetariko batzuk Bizkaiko emakume alargunen egoeran aplikatzeko modukoak direla.

Oinarrizko eta bigarren mailako informazio iturrietan oinarrituz aztertutako arloek (esaterako, sozio-demografia edo ekonomia), bestalde, talde osoari aplikatzeko moduko arazoak dituzte.

Aztertutako gainerako arloen kasuan, talde horretan aurkitu diren arazoaren orokortzea mugatuta gelditzen da, ez baitago emakume guztiei buruzko datu nahikorik.

Hausnarketa horietan oinarrituz, lehenengo ondorioztat, esan daiteke emakume alargunen taldearen barruan, egoera pertsonal eta sozial heterogeneoak kontuan hartuta, arazo komunak daudela, aztertutako arlo desberdinetan (mendekotasuna, heziketa, ekonomia, lana, aisialdia eta elkartzegitura), eta ondoren, garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

Horrekin batera, kontuan hartu behar da Bizkaiko emakume alargunen taldeak kide kopuru handia daukala, emakume guztiei dagokienez, eta 2003an talde horren barruan ia 68.000 emakume zeuden; faktore hori baloratu egin behar da jarduketa neurri zehatzak inplementatzeko eta diseinatzeke orduan.

Datuekin jarraituz, ikerketaren hasieran ikusten da, gizon alargunen taldearekin konparatuz, emakume alargunak Bizkaiko pertsona alargunen %84 baino apur bat gehiago direla.

Beste alde batetik, adin talde batzuetatik aurrera, emakume alargunek ehuneko garrantzitsua dute, emakume guztien ehunekoari dagokionez, batez ere 70 urtetik aurrera; kasu honetan, talde hori zehazten duen aldagai nagusienetariko bat adina da.

Inkestaturiko emakume alargunen laginaren kasuan, ia %94,5ek 50 urte baino gehiago dauka; gainera, emakumeen erdia baino gehiago 50-69 urte bitartean barruan dago.

Horrek azalpena dauka; izan ere, emakumeen elkarteetan parte hartzen duten emakumeen batez besteko adina "adin ertaina" deritzonaren barruan egoten da, eta, emakumeen adinak gora egin ahala, partaidetzak behera egiten du.

Inkestaturiko emakume alargunen %56,5 bakarrik bizi da etxean. Eta beste pertsona batzuekin bizi direnen artean (%43,5), gehienak seme-alabekin bizi dira (emakumeen %82,7 inguru bakarrik bizi dira). Beste pertsona batzuekin ere bizi izaten dira batzuetan etxean, baina ehuneko txikiagoan: familiakoak/aita/ama.

Gainera, egoera horri beste faktore bat gehitu behar zaio: pertsona hauek mendekotasuna dute, ehuneko ertain edo handi batean (%64,20): ekonomia, zaintzak, laguntasuna, etab.

Datu horietatik atera daitekeen lehenengo ondorioa hauxe da: **emakume alargunen ehuneko handi batek familia zamak ditu**. Zama horiek ez dira murrizten alargun gelditzeko unean, eta egoera hori ez da islatzen alarguntasunak kasurik gehienetan dakarren "behin-behinekotasun ekonomikoan".

Hemen, adina aldagai garrantzitsua da eta eragina dauka familia zamak neurri handiagoan edo txikiagoan edukitzeko orduan; hala eta guztiz ere, azken urteotako belaunaldi aldaketaren eraginez (seme-alabak beranduago sartzen dira lan merkatuan edo ez dute independentziarik), etxetik irteteko ordua atzeratu egiten da, eta horrela, atzeratu egiten da mendekotasun hori ez duten emakume alargunen adina.

Horrek eragin zuzena dauka emakume horien egoera ekonomikoan; izan ere, etxean menpeko pertsona horiek edukitzean, gastuen maila diru-sarreraren maila

baino handiagoa da; eta horixe da emakumeek sarritan aipatu duten arazoetariko bat, geurekin zenbait forotan bildu direnean.

Gainera, erakunde publikoei laguntzaren bat eskatzeko orduan, adin jakineko seme-alabak edo gurasoak edukitzearen eraginez, laguntza jakinak lortu barik gera daitezke; laguntza horiek, legeak ezarritako baremoen arabera, ez dira egokitzen emakume horien benetako egoerara.

Horrekin batera, esan behar da emakumeen ehuneko handi batek **osasun arazoren** bat duela; hain zuzen ere, inkestaturiko emakume guztien %50,2k, eta, emakumeok zenbat eta zaharragoak izan, arazoak ere hainbat eta ugariagoak dira.

Osasun arazorik gehienak fisikoak edo mugikortasunekoak dira, eta ondorioak izaten dituzte eguneroko bizitzan, emakume guztien %57,9aren kasuan, gutxi gorabehera.

Ondorio horiek desberdinak dira, eta ohikoenak honako hauek dira: etxeke lan batzuk ez egitea, kalera irten ezin izatea, nekatuta egotea, aisialdiko edo astialdiko jarduera batzuk egin ezin izatea, lanik egin ezin izatea, etab.

Azken hausnarketa hori estu lotuta dago emakumeok kanpoko pertsonetikiko edo erakundeetikiko duten **mendekotasun mailarekin**; hala ere, emakume alargunen %12k soilik jasotzen du laguntzaren bat: etxeke lanak, laguntasuna, osasuna, etab.

Laguntza hori, kasurik gehienetan, kontrataturiko pertsonak edo familiakoek ematen dute.

Kasu honetan ere, eragin handiena duen aldagaia adina da; baina bizikidetzaren unitateak ere eragina dauka, eta laguntzaren bat duten emakumerik gehienak zaharrenak edo bakarrik bizi direnak dira.

Erakundeek eskainitako laguntzen edo zerbitzuen oraingo baldintzetara ez egokitzearen eraginez, emakumeok ezin izaten dituzte laguntza batzuk jaso; halaber, aipagarria da kasu batzuetan informazio eza handia dagoela, halako laguntzak edo zerbitzuak eskatzeko modurik edo lekurik egokienei buruz.

Informazio eza horrekin batera, emakume alargunen ehuneko handi baten ezaugarriak ere kontuan hartu behar dira; izan ere, adinak, heziketa maila urriak, "ohitura ezak" edo "kulturak" oztopatu egiten dute emakumeok halako laguntzak lortu ahal izatea.

Bestalde, **zerbitzuren bat ematen duten** emakume alargunen ehunekoa %24,3koa da. Laguntza hori batez ere familiakoei zuzenduta egoten da (gurasoak edo seme-alabak, eta puntu honetan aipagarria da iloben zaintza).

Etxebizitzaren, horniduraren eta zerbitzuen ezaugarriei dagokienez, bi puntu nabarmendu behar dira: lehenengo eta behin, emakume alargunen %90 inguru euren jabetzako etxebizitza batean bizi dira, eta %3,5 familiakoen etxean bizi dira (batez ere, seme-alabak); bigarrenaz, ez dago alde handirik etxebizitzaren neurrian, eta horien batez besteko azalera 77 metro karratukoa izaten da.

Horrek ez du esan nahi euren jabetzako den etxebizitza hori guztiz ordainduta dagoenik; hala eta guztiz ere, kasurik gehienetan, eta emakume horien adinaren ondorioz, ez dute hipotekarik ordaindu behar izaten, baina bai etxebizitza horren mantentzen gastuak, eta kasu batzuetan, gastuok ordaindu ezin izaten dituztenez, etxebizitza saldu edo gastuok ahalik eta gehien murriztu behar izaten dituzte, eta horrela, euren "bizi kalitatea" murriztu egiten da.

Bestalde, aditzera eman behar da, etxebizitzaren hornidurei eta zerbitzuei dagokienez, berokuntza sistemarik edo igogailurik ez edukitzea garrantzi handiko elementua dela, batez ere adin jakin batetik aurrera eta osasun egoera jakinetan, eta sarritan ez dute halakorik edukitzen.

Etxebizitzan gainerako funtsezko hornidurak (ur beroa, telefonoa, garbigailua, berogailua, etab.) ehuneko ertainak edo altuak ditu.

Oro har, ez da etxebizitza egokitu beharrik egoten; hala ere, beharrian hori duten emakumeen kasuan, egokitzapena igogailura mugatzen da, batez ere emakumerik zaharrenen kasuan.

Aipatu beharreko beste ondorio bat emakume talde horren **heziketa mailari** buruzkoa da; izan ere, %89,3k ikasketa maila baxua dauka, ez dauka ikasketarik edo horiek oinarri-oinarrizkoak dira; gainera, idazketa edo irakurmen mailako baliabide baxuak edo nuluak dituzten emakume taldeak daude, eta horrek eragin zuzena dauka eguneroko lan batzuetan; izan ere, alarguntasunaren eraginez, lanon ardura eurek dute orain: ziurtagiriak, banketxeak, zerbitzuen kontratazioa, etab.

111

Heziketa maila baxu horren ondorioz, lanean integratzeko arazoak dituzte, eta horri, gainera, lana berehala aurkitu behar izatea eta adina gehitzen zaizkio.

Ikasketa mailarekin batera, eta heziketa arloaren barruan, ondoriotzat esan behar da talde honek partaidetza maila ertaina edo baxua duela ikastaroetan, eta ikastaroren bat egin duten emakume alargunen kopurua %36,1ekoa da.

Gainera, elkartze-egituraren barruan egindako ikastaro mota honako honekin erlazonaturiko arlo batzuetan oinarritzen da: eskulanak, artisautza, pintura eta joskintza. Emakume alargunen %50ek baino apur bat gehiagok ikastaro horietan hartu dute parte.

Aipagarria da emakumeek halako ikastaroak, kasu guztien %55,6an, elkarrekin egiten dituztela; izan ere, horixe da ikastaroen informazio eta eskaintza handiena egiten dien iturri nagusia.

Partaidetza maila horren eragileak era askotakoak dira: adina (%37,5), denborarik eza (%29,2) eta baliabide ekonomikorik eza (%20,8). Azken eragile horri dagokionez (baliabide ekonomikorik eza), esan behar da arazo iraunkorra dela, talde horren arlo pertsonalen eta sozialen azterketan ikusi dugunez, eta heziketa ikastaroen partaidetzarekin ere lotuta dago.

Ikusten denez, ondorio adierazgarrietariko bat arlo ekonomikoari buruzkoa da. Ikerketan zehar esan denez, emakume alargunik gehienentzako (edo guztientzako) arazo nagusienetariko bat **ekonomikoa** da. Izan ere, alargun gelditzean, gauzak eskuratzeko ahalmena galtzen dute, sarritan euren diru-sarrerak %50era baino gehiagora murrizten baitira. Diru-sarrera horiek, sarritan, senarrarengandik etorri dira, edo pentsiotik, jubilaturiko pertsonen kasuan.

Gainera, aditzera eman behar da emakumea alargun gelditzen denean, SOVI deritzona⁷ jasotzen badabil edo lanean nahiz erretiroa kobratzen badago, hori kendu edo murriztu egiten zaiola.

112

Arazo ekonomikoa da emakume alargunek gehien aipatzen eta errebindikatzen dutena, horrek larritu egiten baitu emakumearen egoera psiko-soziala.

Bizkaian, alarguntasuneko batez besteko pentsioa 350 euro ingurukoa da, eta beraz, ez da iristen gobernua adierazitako lanbide arteko gutxieneko soldatarako adierazitako 460,5 euroetara.

Inkestetan lorturiko datuetara itzulita, esan daiteke emakume alargunen ia %100ek alarguntasuneko pentsioa jasotzen duela.

Horietatik, ia %90ek pentsio hori soilik jasotzen du (hilero 350-400 euro).

Horri, kasu batzuetan, kanpoko laguntza batzuk gehitzen zaizkio: pribatuak, publikoak, erretiroak, etab., eta horien kopurua guztizkoaren %1era iristen da.

⁷ SOVI deritzonari buruz, 3. aipuan komentatu duguna.

%10 inguruk soldata bat ere jasotzen dute; soldata jasotzen dutenen taldearen barruan, emakumerik gazteenak eta etxetik kanpo lan egiten dutenak daude.

Halaber, emakumeen %50 lehenago ere lanean ibili da, eta orain lanik ez egitearen eragile nagusia adina da (ertaina-altua).

Ehunekorik handiena 35-49 urte bitarteko emakumeen artean dago (%44,4), etxetik kanpo lan egiteari dagokionez.

Lanarekin loturiko ezaugarri horrek eta pentsioen sistemak markatzen dute, ehunekorik handiengan, emakume alargunen "behin-behineko" egoera ekonomikoa. Emakume horietariko askoren ezaugarriak ere kontuan hartu beharrekoak dira (batez ere, 50 urtetik gorako emakumeen kasuan): etxeko lanetan diharduten emakumeak, euren karguan seme-alabak dituztenak, ikasketarik gabe edo oinarri-oinarrizko ikasketekin (%89,3) eta etxetik kanpo lan egiteko esperientziarik gabe.

Kasu askotan, behin-behinekotasun egoera horren eraginez, etxetik kanpo lan egin behar izaten dute, horrek dakartzan zailtasunekin: adin ertainekoak eta lanpostu batzuk lortzeko behar den heziketa berezirik gabekoak (batez ere, pertsonen zaintza edo garbiketa), eta sarritan "behin-behinekotasun" egoera larrian bizi dira.

Adibidetzat, inkestaturiko emakume alargunen ia %10 etxetik kanpo dabilta lanean, eta horren eragile nagusia beharizan ekonomikoa da; alargundu ostean irten behar izan dute etxetik kanpo lanera.

Horrekin batera, komentaturikoa ez ezik (egoerarik ohikoena), beste bi egoera ere bereizi behar dira:

- Etxetik kanpo lan egiten duten emakume gazteak; alarguntasunaren eraginez, diru-sarrera baxuagoak dituzte, baina lana mantentzen dute. Emakume horientzat ere, ondorio ekonomikoak handiak dira, baina beste maila batekoak, etxetik kanpo lanik egiten ez duten emakumeen kasuari dagokionez.
- 60-65 urtetik gorako emakumeak; lan merkatuaren integrazioa ia nulua da, batez ere emakume horien adinaren eraginez. Kasu hauetan, laguntza ekonomikoa kanpoko erakundeetatik edo familiengandik iristen da; edo, besterik gabe, gelditu zaien pentsioarekin *moldatzen* dira; behin-behinekotasun horrek ondorioak ditu gauzak eskuratzeko ahalmenean eta eguneroko bizitzan: behin-behinekotasuna eta beharrian batzuk ez betetzea (elikadura, aisialdia, etxeko zerbitzuak, etab.).

Nolanahi ere, "behin-behinekotasun ekonomikoaren" gaia funtsezkoa da euren egoeran; izan ere, eragina dauka bizitza pertsonalean (psikologikoa, familiara, gastuen murriztapena, etab.) eta sozialean (jarduera batzuk egitea, lagunak, etab.).

Ondorioen artean aipatzeko moduko beste faktore bat, talde horren eguneroko bizitzan eragin handia duena, emakume alargunen **alderdi psiko-sozialean** oinarritzen da.

Elkarrizketaturiko emakume alargunek gehien aipatzen dituzten arazoak psikologikoak dira (depresioak, antsietatea, kalera irteteko gogorik eza, antzinako lagunak biltzeko gogorik eza, bakardade sentimendua, etab.), batez ere alarguntasunaren lehenengo uneetan.

Denborarekin, arlo batzuetan lehenengo ohiturak berreskuratu eta aisialdiko nahiz astialdiko jarduerak egiteko zein partekatze beste modu batzuk bilatzen dira.

Horrela, elkarrizketaturiko emakume alargunek sarrien egiten dituzten jarduerak aztertzeko orduan, honako hauek aipa daitezke, garrantziaren arabera ordenatuta: paseatu, lagunekin nahiz familiakoekin egon, telebista ikusi, elkarteko jardueretara joan, etab.

Hain sarri egiten ez dituzten jarduerak honako hauek dira: bidaiatu, ikuskizun kulturaletara joan, ikastaroak egin, kirola egin, etab. Izan ere, ez dute baliabide ekonomiko nahikorik, eta gainera, beste zergati batzuk ere badaude, adibidez, adina, osasuna edo astirik eza, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeen kasuan.

Kasu honetan, aldagai ekonomikoa faktore garrantzitsua da, talde hori aztertzeko orduan, eta aisialdiko nahiz astialdiko jardueretan ere eragina dauka. Emakume alargunen %58,9arentzat zailtasun nagusia da jarduera jakinak egiteko edo horietan parte hartu ahal izateko.

Jarduera horiek, gehienbat, lagunekin, familiakoekin (batez ere, seme-alabak) eta elkarteko kideekin egiten dituzte, eta horiek, kasu askotan, elkarteen barruan sortzen diren lagunen zirkuluaren barrukotzat hartzen dira.

Oro har, aisialdiko edo astialdiko jardueri buruzko informazioa hartzen dute, batik bat elkarteetan; hala ere, lehen esan dugunez, jarduera horiek egiteko zailtasun nagusia (ikastaroak, txangoak, bisitaldi kulturalak, kirola, bidaiak, zinea/antzerkia) ekonomikoa da, edo halako jardueretarako baliabide nahikorik ez edukitzea.

Eta, kasu batzuetan diruz lagundutako ehunekoa edo halako jardueren kostuaren murriztapena egon arren, emakume alargunen batez besteko pentsioek ez dute halakorik egiteko aukera ematen, ez elkarteen barruan eta ez bertatik kanpo.

Puntu honetan, aipagarria da **elkartze-egituraren eginkizuna** eta horrek emakume alargunen egoera psiko-sozialean duen eragina.

Datu estatistikoetara itzulita, Bizkaian helburu eta jarduera desberdinak dituzten emakumeen elkarten kopurua eta aniztasuna handia da. Elkarte horiek jatorrizko udalerrian edo inguruko udalerrietan garatzen dute euren jarduera (elkarte guztien %50,9, Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun Unitateak 2001ean egindako ikerketa batean adierazitakoaren arabera).

Jarduerak era askotakoak dira: kultura, eskulanak, osasuna, astialdia, hezkuntza, laguntza soziala, etab. Elkarte horietan dauden emakumerik gehienak 40 urtetik gorakoak dira.

Azterturiko taldeari dagokionez, emakumeen partaidetza duten bi elkarte mota bereizten dira. Alde batetik, emakume alargunek soilik osaturiko elkarteak; horien helburu nagusiak talde horren eskubideen errebindikazioa nahiz defentsa eta laguntza psikologikoa nahiz juridikoa dira; bestetik, emakumeen elkarte orokorrak; egoera zibil desberdineko emakumeek osatzen dituzte eta, bertan, era askotako jarduerak egiten dira (kultura, hezkuntza, astialdia).

Emakume alargun batzuek bietan parte hartzen dute, eta horietariko bakoitzean eskaintza desberdina bilatzen dute.

Elkarrizketaturiko emakume alargunen elkarteek egiten dituzten jarduera nagusiak honako hauek dira: aisialdiko jarduerak (dantza, ibilaldiak, irteera kulturalak, bidaiak, jolasak, etab.), eskulanak nahiz artisautza, hezkuntza zein heziketa, jarduera kulturalak eta laguntza soziala.

Bestalde, emakume alargunen %25,6 elkarteetara joaten da, astialdiarekin erlazionaturiko jarduerak egitera: ibilaldiak, janariak, dantzak, bidaiak, etab.

Eta, elkarteek talde honen egoera psiko-sozialean duten eginkizunari dagokionez, zer da aipagarriena?

Agian, gai horri buruz ateratako ondorio nagusizat, esan daiteke elkarte horien eta, beraz, emakume alargunen elkartz-egituraren eginkizuna funtsezkoa dela euren bizitza pertsonalerako eta sozialerako.

Elkarte horietan parte hartuta (jarduera desberdinak eginez: ikastaroak, ibilaldiak, bidaiak, jarduera kulturalak, dantzak, etab.), emakume alargunak babestuta sentitzen dira, garapen pertsonala nahiz kulturala dute, eta, batik bat, euren egoera berean dauden edo euren kezkak ulertzen dituzten beste emakume batzuekin erlazioak edukitzeko aukera dute.

Elkarrizketaturiko emakume alargunak arrazoi desberdinen eraginez iritsi dira elkarteetara: lagunaren eraginez, sendagileak edo laguntzaile sozialak aholkatuta, familiakoek edo seme-alabek "behartuta", etab. Hala eta guztiz ere, puntu komuna dago: laguntza bilatu, bakardadetik irten eta alarguntasunak eragindako "hutsune" psikologikoa gainditu beharra dago, eta gainera, beste emakume batzuk ezagutu, horiekin harremanak izan eta jarduerak egiten dira.

Emakumeen %29,6 etxetik irteteko eta alargunak diren edo ez diren beste emakume batzuekin harremanak edukitzeko sartzen dira elkarteetan.

Sarritan, elkartera zerbait JASOTZERA joaten dira eta azkenean EMAN ere egiten dute: laguntza psikologikoari eta sozialari loturiko *feed-back* deritzona sortzen da elkarte hauen barruan, eta hori, berriz, ez da mugatzen bertan egiten diren jardueretara.

Alde batetik, elkarteetara alargundu ostean joaten diren emakumeei, eta bestetik, lehenik ere bertan ibili eta alargundu ostean bertara itzultzen diren emakumeei dagokienez, bi kasuetan ere elkarteetan parte hartzen duten emakume alargunen %90aren ustez elkarteetan egotea ona izan da, bai arlo pertsonalean eta bai arlo sozialean.

Hemen ikusten denez, beraz, elkartze-egiturak eginkizun garrantzitsua dauka talde horrentzat, emakume alargunen taldearentzat, emakumeok bizimodu berrira egokitzeko prozesuan, eta garapen pertsonalarekin eta sozialarekin erlazionaturiko egoera berriak sortzen ditu.

Horrela, jendea ezagutzea eta beste emakume batzuekin harremanak izatea funtsezko gaia da emakume alargunen taldearentzat, eta elkarteek garrantzi handiko eginkizuna dute arlo horretan; aldi berean, emakumeok jarduera paraleloak ere egiten dituzte, eta horrela, funtsezko eginkizuna garatzen dute gizartean, emakume alargunen taldea dinamizatzeko eta sozializatzeko eragileztat.



JARDUKETARAKO PROPOSAMENAK

Bizkaian elkarturiko emakume alargunen taldean zuzen-zuzen bildutako datuen azterketa eta ateratako ondorioak kontuan hartuta, jarduketarako proposamen hauek aurkezten dira, eta proposamenok Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusiak inplementatzeko modukoak dira.

Jarduketarako proposamenak planteatzeko orduan *a priori* funtsezkotzat har daitekeen ondorioetariko bat Bizkaiko emakume alargunen taldearen zehaztapena da, ezaugarri komunak eta bereizgarriak dituen taldetzat: gehienbat 65 urtetik gorako emakumeak, osasun arazoak (fisikoak edo psikologikoak), mendekotasun maila ertaina edo altua, ikasketa maila baxua, lan jardueraren tasa baxua, baliabide ekonomikoen murriztapena eta bizitza soziala nahiz elkartekoa berreskuratzeko zailtasunak.

Aldagai horiek guztiak dituen taldea, kasurik gehienetan, bazterketa sozialaren arriskuan dagoela esan daiteke.

Eusko Jaurlaritzak bazterketa sozialari⁸ buruz egiten duen definizioa kontuan hartuta, hori hauxe dela esan daiteke: *Bazterketa eskubide sozialak garatzeko ezintasuna edo ezgaitasuna da, batez ere lanerako eskubidea, baina baita hezkuntzarako, heziketarako, kulturarako, osasunerako, etxebizitza duinerako eta babes sozialerako eskubidea ere, baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikorik ez edukitzearen ondorioz.*

Hurbiltze hori aintzat hartuz, honako pertsona mota hauek bazterturik daudela esan daiteke:

⁸ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak egindako 2002ko Jardueren Memoriatik ateratako definizioa.

- Oinarrizko elikadura beharrianak betetzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsonak.
- Etxebizitza duina eta egoera onekoa lortzeko edo mantentzeko beharrezko baliabiderik ez duten pertsonak.
- Modu orokorragoan, oinarrizko gizarte eskubideak (enplegurako, hezkuntzarako, osasunerako eta abarrerako eskubidea) lortzeko gauza ez den edozein pertsona; horren ondorioz, ez dauka aukerarik bizitza independente normalizatua garatzeko.

Horrela, erakundeak bazterketaren aurka garatzen ari diren politiken helburua aipaturiko errealitate horiek jorratzea da, horien jatorria edozein izan arren; esate baterako, langabezia, soldata baxuak, familia apurtzearekin loturiko egoerak, gutxiengo etnikoetakoa edo nazionaletakoa izatea, elbarritasuna edo ezgaitasuna, alkoholismoa, drogamenpekotasuna edo antzeko beste edozein arazo.

120

Testuinguru horretan, non koka daiteke emakume alargunen taldea?

Lorturiko emaitzak kontuan hartuta, eta emakume horien egoera pertsonalak nahiz sozialak oso heterogeneoak direla jakinik, talde horrek arazo komuna dauka arlo desberdinetan, eta arazo hori, berriz, Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusiak jarduketa zehatzen bidez jorra dezake; taldearen beste arazo batzuek, aldiz, Idazkaritza Teknikoaren eskumenak gainditzen dituzte eta beste Sail edo Erakunde batzuek betetzen dituzte edo horien eskumenekoak dira.

Jarduketarako proposamen horiek arlo desberdinetan sailka daitezke, detektaturiko arazoan, ondorioen eta kasuan kasuko erakundearen jarduketa eskumenen arabera.

1. ARLOA: MENDEKOTASUNA

Arlo honen barruan, honako aldagai hauen inguruan diagnostikatu diren arazo desberdinak biltzen dira: adina, osasun egoera, bizikidetzaren unitatea eta kanpoko mendekotasun maila.

Talde honen eguneroko bizitzan eragina duten aldagaiak dira, eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, horren mendekotasun mailan ere eragina dute, arlo desberdinetan: ekonomia, zaintzak, laguntasuna, etxeko lanak, etab.

Detektaturiko arloak:

- Emakume alargunen talde honen batez besteko adina altua da; izan ere, Bizkaiko emakume hauen erdia baino gehiago (%66,14) 70 urtetik gorakoa da.

Batez besteko adin altua edukitzearen eraginez, talde honek horrekin loturiko ezaugarri batzuk ditu, eta horiek, berriz, adineko pertsonen beste talde batzuek dituzten arazo berru sar daitezke.

Taldearen ezaugarri bereizgarrietariko bat, izan ere, emakume alargunen %56,5 etxean bakarrik bizitzea izan daiteke; egoera hori, beste arazo batzuen artean (seme-alaben independentzia, etab.), alarguntasunak berak eragiten du.

Beste arazo batzuk ere badira, esate baterako, osasun egoera, eta horrek kanpoko mendekotasun egoera handia sortzen du.

- Beste alde batetik, emakume alargunen taldearen zati bat (%43,5) ez da bakarrik bizi, eta, kasu guztien %80 baino gehiagotan, seme-alaben mendekotasuna dute; etxean bizi dira eta mendekotasun maila ertaina edo altua dute (ekonomikoa, zaintzak, laguntasuna, etab.), kasu guztien %64,2an; beste arazo batzuk dituzte.

Familia zamekin loturiko alarguntasun egoera horrek kide bakarreko familia sortzen du, eta bertan, emakumeak aitaren eta amaren eginkizuna hartzen du alderdi askotatik: ekonomia, hezkuntza, zaintzak, erantzukizuna, erabakiak, etab. Egoera horrek gabezia handiak sor ditzake arlo desberdinetan (ekonomikoak, baliabide materialak, hezkuntza, etab.).

- Emakume alargunen %50,2k osasun arazoren bat dauka (fisikoa, psikologikoa edo mugikortasunekoa), eta, adinarekin, ehunekoa hori gero eta handiagoa da.

Horrek, bizikidetza unitate nagusiaren ezaugarriekin batera, beharizan egoera bat sortzen du, kanpoko laguntzaren arloan: ekonomikoa, zaintzakoa, laguntasunekoa, etab.

Osasun arazoen ehuneko altu horren eraginez, gainera, emakume alargunek ezin izaten dute parterik hartu bizitza sozialean, heziketako edo astialdiko jarduera batzuetan, horiek ez baitira euren ezaugarrietara egokitzen.

- Eta, osasun arazoen aldetik ehuneko adierazgarri horiek egon arren, talde horren kanpoko mendekotasun maila baxua da; izan ere, emakume alargunen %12k soilik jasotzen du kanpoko laguntza etxeko lanetan, zaintzetan, laguntasunean, etab.

Puntu honetan, etxerik etxeko laguntzako zerbitzu publikoetarako edo laguntza jakinetarako pertsona bat kontratatze baliabide ekonomikorik ez edukitzearen ondorioz, mendekotasun egoera sortzen da.

Kasu askotan, erakunde publikoek eskainitako laguntzetarako edo zerbitzuetarako eskaintza eta baldintzak ez dira egokitzen talde horren ezaugarrietara (adina, bizikidetza unitatea, elbarritasunaren onarpena, errenta, etab.); gainera, ez da horien onarpena lortzen.

Mendekotasunari dagokionez, erakundeek (Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saila, udaletako Zerbitzu Sozialak, etab.) eskaintzen dituzten laguntza eta zerbitzu horien adibidetzat, honako hauek aipa daitezke:

- *Laguntza psikologikorako zerbitzua:* Familia esku-hartzearekin loturiko arreta psikologikorako programa da, tratu txarrak, eraso sexualak eta arazo psikologikoak daudenean (ezkontza edo bikotea apurtzearen eraginezko arazo psikologikoak).
- *Telealarma:* Bizkaiko Foru Aldundiak berehalako laguntza zerbitzua eskaintzen die bakarrik bizi diren edo egunaren zatirik handiena bakarrik ematen duten adineko pertsoneri, baldin eta, adinaren, gaixotasunaren, elbarritasunaren edo beste zergati batzuen eraginez, arrisku egoeraren bat eduki badezakete, eta horren erreferentziako araua honako hau da:
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 9ko 76/2002 Foru Dekretua, telealarma programa arautu duena, Bizkaiko Lurralde Historikoan (2002ko apirilaren 29ko 80. BAO).
- *Eguneko zentroak mendekotasuna duten adineko pertsonentzat:* EGUNEKO ZENTROEK eginkizun hori dute, eta beraz, benetako aukera eraginkorrak dira, adineko pertsonak zahar-etxean sartzeari dagokionez; gainera, halako zentroei esker, pertsona horiek euren inguru familiarrean eta sozialean jarraitzen dute, prestakuntza egokiko profesionalek beharrezko arreta eta zaintzak eskaintzen dizkieten bitartean, eta horren erreferentziako araua honako hau da:
 - Abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretua, eguneko zentroetan sartzeko sistema arautzen duena, Bizkaiko Foru Aldundian mendekotasuna duten adineko pertsoneri dagokienez; mendekotasuna duten adineko pertsonentzat eguneko zentroetan plazak hitzartzen dira, eta gainera, banakako dirulaguntzak ematen dira, hitzartu gabeko plazetan sartzeko (2001eko urriaren 11ko 196. BAO).



- Azaroaren 13ko 167/2001 Foru Dekretua, abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretua aldatu duena; azken horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian mendekotasuna duten adineko pertsonak eguneko zentroetan sartzeko sistema arautu da; mendekotasuna duten adineko pertsonentzat eguneko zentroetan plazak hitzartzen dira, eta gainera, banakako dirulaguntzak ematen dira, hitzartu gabeko plazetan sartzeko, eguneko zentroetan, mendekotasuna duten adineko pertsonei dagokienez (2003ko urtarrilaren 17ko 11. BAO).
- Abenduaren 23ko 213/2002 Foru Dekretua, 145/2001 Foru Dekretuko 3. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatu dituena, 2003rako kredituaren mugari dagokionez; azken horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian mendekotasuna duten adineko pertsonak eguneko zentroetan sartzeko sistema arautu da; mendekotasuna duten adineko pertsonentzat eguneko zentroetan plazak hitzartzen dira, eta gainera, banakako dirulaguntzak ematen dira, hitzartu gabeko plazetan sartzeko, eguneko zentroetan, mendekotasuna duten adineko pertsonei dagokienez (2001eko abenduaren 4ko 232. BAO).
- Abenduaren 16ko 265/2003 Foru Dekretua, 145/2001 Foru Dekretuko 5. nahiz 13. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatu dituena, 2004rako kredituaren mugari dagokionez; azken horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian mendekotasuna duten adineko pertsonak eguneko zentroetan sartzeko sistema arautu da; mendekotasuna duten adineko pertsonentzat eguneko zentroetan plazak hitzartzen dira, eta gainera, banakako dirulaguntzak ematen dira, hitzartu gabeko plazetan sartzeko, eguneko zentroetan, mendekotasuna duten adineko pertsonei dagokienez (2004ko urtarrilaren 5eko 2. BAO).
- Otsailaren 3ko 3/2004 Foru Dekretua, 145/2001 Foru Dekretuko 12. artikulua aldatu duena; azken horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian mendekotasuna duten adineko pertsonak eguneko zentroetan sartzeko sistema arautu da; mendekotasuna duten adineko pertsonentzat eguneko zentroetan plazak hitzartzen dira, eta gainera, banakako dirulaguntzak ematen dira, hitzartu gabeko plazetan sartzeko, eguneko

zentroetan, mendekotasuna duten adineko pertsoneri dagokienez, bertan erotasuna duten pertsonen arretarako plazetarako eta elbarritasun fisikoa duten pertsonen arretarako plazetarako aurreikusitako zenbatekoen aldetik (2004ko otsailaren 20ko 35. BAO).

Jarduketarako proposamenak:

- Bizkaiko emakume alargunen kanpoko mendekotasunarekin erlazionaturiko beharriaren ikerketa teknikoa egitea.
- Egindako ikerketa teknikoa Bizkaiko kanpoko mendekotasunarekin erlazionaturiko laguntzak edo zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeei helaraztea.
- Udalen eta emakumeen elkarten arteko lankidetzak sustatzea, mendekotasuna duten emakume alargunen zaintza eta laguntza beharriarenak betetzeko "Elkartasun Zerbitzuak" sortzeko.
- Urteroko informazio hizketaldiak antolatzea, emakumeen elkarteetan, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak eta udalek eskainitako Laguntza eta Zerbitzu Sozialei buruz, emakume talde horrek halakoak eskuratzeko aukera baitauka.

A1: MENDEKOTASUNA

A1.1: SOZIO-DEMOGRAFIKOAK: Adina, alarguntasun urteak, bizikidetza unitatea

DIAGNOSTIKOA	ONDORIOAK	EKINTZAK
Emakume alargunen %66,14 izatez 70 urtetik gorakoa da.	Batez besteko adin altuko taldea da eta pertsona bakarreko bizikidetza unitatea osatzen du; horrek kanpoko mendekotasun egoerak sortzen ditu.	Bizkaiko emakume alargunen kanpoko mendekotasunarekin erlazionaturiko beharriaren ikerketa teknikoa egitea.
Emakumeen %43 baino apur bat gehiago 10 urtetan baino gehiagotan da alarguna. 50-69 urte bitarteko emakume alargunen %45,6 izatez 15 urte baino gehiagotan da alarguna.	Foru eta udal erakundeek emandako laguntzak eta zerbitzuak ez dira egokitzen kanpoko mendekotasun egoeretara eta emakume alargunen ezaugarrietara, neurri handi batean (adina, bizikidetza unitatea, ondasunak).	Egindako ikerketa teknikoa, berriz, Bizkaiko kanpoko mendekotasunarekin erlazionaturiko laguntzak edo zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeetara helaraztea.
Emakume alargunen %56,5 bakarrik bizi da etxean. Emakume alargunen %43,5k familia zamak ditu, eta horien barruan seme-alabek %82,7 ordezkatzeko dute. Kasu guztien %64,20an, familia zama horien mendekotasun maila ertaina edo altua da (ekonomia, zaintzak, laguntasuna, etab.).	Familia zamak dituzten emakume alargunen egoeran, mendekotasun arazo desberdinak ikusten dira; izan ere, kasu honetan, halako egiturarekin erlazionaturiko laguntzak edo zerbitzuak eskatzen dira. Honekin batera, kasu batzuetan, pertsona bateko baino gehiagoko bizikidetza unitatea edukitzeak mugatu egiten du laguntza batzuk lortzeko aukera.	Udalen eta emakumeen elkarten arteko lankidetzak sustatzea, mendekotasuna duten emakume alargunen zaintza eta laguntza beharriak betetzeko "Elkartasun Zerbitzuak" sortzeko.

A1: MENDEKOTASUNA

A1.2: OSASUN EGOERA

DIAGNOSTIKOA	ONDORIOAK	EKINTZAK
<p>Emakume alargunen %50,2 osasun arazoren bat dauka (fisikoa edo psikikoa).</p> <p>Osasun arazo horietariko %93,1 fisikoak edo mugikortasunekoak dira.</p> <p>Emakumeen %57,9arentzat, osasun arazo horiek ondorioak dituzte euren bizitza pertsonalean eta sozialean.</p>	<p>Emakumeen adina ertaina edo altua izan arren, eta eguneroko bizitzan ondorioak dituzten osasun arazoak badituzte ere, kanpoko mendekotasunaren mailan ehuneko txikia ikusten da.</p> <p>Foru eta udal erakundeetatik osasun arazoaren eraginezko mendekotasun kasuetarako eskaintzen diren laguntzen eta zerbitzuen baldintzak ez dira egokitzen emakumeen ehuneko handi baten ezaugarrietara (adina, bizikidetzaren unitatea, elbarritasunaren onarpena, ondarea).</p>	<p>Egindako ikerketa teknikoa, berriz, Bizkaiko kanpoko mendekotasunarekin erlazionaturiko laguntzak edo zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeetara helaraztea.</p>

A1: MENDEKOTASUNA

A1.3: KANPOKO MENDEKOTASUN MAILA: Kanpoko zaintzak jasotzea (etxeko lanetarako laguntza, osasun zaintzak, laguntasuna)

DIAGNOSTIKOA	ONDORIOAK	EKINTZAK
<p>Emakume alargunen %12k kanpoko laguntzak edo zaintzak jasotzen dituzte eguneroko bizitzan.</p> <p>Osasun arazoren bat duten emakume alargunen %79,2k ez dute kanpoko laguntzarik jasotzen.</p>	<p>Kanpoko mendekotasun maila baxua da, nahiz eta emakumeok adin ertaina edo altua eduki eta eguneroko bizitzan eragina duten osasun arazoak izan.</p> <p>Ez dituzte ezagutzen mendekotasunarekin erlazionaturiko laguntzak edo zerbitzuak eskatzeko informazio bideak, nahiz eta erakundeek erraz eskuratzeko moduko informazio mekanismoak hiritarren esku jarri: doako telefonoak, hiritarren arretarako bulegoak, Internet.</p> <p>Informazio eza horrekin batera, taldearen ezaugarriak ere aintzat hartu behar dira; izan ere, adinaren, heziketa maila baxuaren, "ohitura ezaren" edo "kulturaren" eraginez, zailagoa da emakume horiek halako laguntzetara edo zerbitzuetara hurbiltzea.</p>	<p>Emakumeen elkarrekin urteroko informazio hizketaldiak egitea, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak eta udalek eskainitako laguntzei eta zerbitzuei buruz, emakume alargunek horiek eskuratzeko aukera baitute.</p>

2. ARLOA: HEZIKETA

Bigaren esku-hartze eremua heziketarena da. Heziketa hori, berriz, akademikoa den eta ez den heziketatzat hartzen da.

Detektaturiko arloak:

- Bizkaiko emakume alargunen taldeak ikasketa akademikoen maila baxua dauka, eta %89,3k ez dauka ikasketarik edo oinarri-oinarrizko ikasketak ditu; gainera, idazkera edo irakurmen baliabide oso baxuak edo nuluak dituzten emakumeen talde garrantzitsuak aurkitu dira, eta horrek eragin zuzena dauka eguneroko lan batzuetan; izan ere, alarguntasunaren ondorioz, orain eurek hartu behar dute lan horien ardura: ziurtagiriak, banketxeak, zerbitzuen kontratazioa, etab.

Heziketa maila baxu horren ondorioz, lanean integratzeko arazoak dituzte, eta horri, gainera, lana berehala aurkitu behar izatea eta adina gehitzen zaizkio.

- Talde honetako kideek partaidetza ertaina edo baxua dute beste heziketa mota batzuetan edo ikastaroetan (%36,1), eta jarduera horiek artisautzarekin, eskulanekin, joskintzarekin edo kirolarekin erlazionaturik daude gehienbat.

Ikastaro horiek, batez ere, emakumeen elkarleen bitartez egiten dira; gainera, elkarreak emakume alargunen heziketarako iturri nagusiak dira.

- Emakume alargunen %50,7k parte hartzen dute eskulanekin, artisautzarekin, pinturarekin eta joskintzarekin erlazionaturiko ikastaroetan; gainera, talde horrek ikastaro horiek eskatzen ditu gehienbat elkarreetan.
- Halako ikastaroak egiteko orduan aurkituriko zailtasun nagusien artean, aipagarria da, adinarekin eta astirik ezarekin batera, ekonomia. Hau da,

baliabide ekonomikorik eduki ezean, ezinezkoa da (ehuneko handian) halako heziketa hasia edo jarraitzea, eta halako ikastaroak sozializazio bide egokiak dira talde honentzat, eta gainera, laguntza psikologiko ona ere eskaintzen dute.

Jarduketarako proposamenak:

- Urteroko lankidetzak hitzarmenak sustatzea, Helduen Heziketa Iraunkorra ematen duten udal zentroyen eta emakumeen elkarten artean, ikasketarik ez duten edo ikasketa maila baxua duten emakume alargunek titulu akademikoa lortu ahal izateko.
- Informazioko hizketaldiak egitea eta informazioa bidaltzea, emakumeen elkarteei dagokienez, enplegurako heziketaren arloan dauden programak argitaratzen direnean (Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu eta Heziketa Saileko Trebatzera Programa), eta programa horietan parte hartzen duten erakundeei buruzko informazioa ere bidaltzea (Fundazioak, Elkarteak, Erakunde Publikoak, etab.).
- Emakumeen elkarteei laguntza tekniko ematea, eskaturiko heziketa jarduerak diseinatzeko eta antolatzeke orduan, Ahalduen Nagusiaren Kabineteak emakumeen elkarteei eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei egindako dirulaguntza-deialdiaren barruan, emakume alargunen eskaria eskaintzara egokitzeko.
- Emakume alargunen taldean gehien eskaturiko ikastaroetarako dirulaguntza-partidak handitzea, Ahalduen Nagusiaren Kabineteak emakume elkarteei egindako deialdiaren barruan.

A2: HEZIKETA

A2.1: HEZIKETA AKADEMIKOA

DIAGNOSTIKOA	ONDORIOAK	EKINTZAK
<p>Emakume alargunen %89,3k ez dauka ikasketarik edo oinarri-oinarrizko ikasketak ditu.</p>	<p>Emakume alargunen talde garrantzitsu batek ikasketa maila baxuak dauzka, eta horrek eragin nabaria dauka euren eguneroko bizitzan, modu independentean jarduteko oztopo handia baita.</p> <p>Ikasketa maila baxu horrek, halaber, laneratzeko edo berriro laneratzeko zailtasunean ere eragin zuzena dauka, beste aldagai batzuekin batera, batik bat adin nagusiagoa duten emakumeen artean.</p>	<p>Urteroko lankidetzak hitzarmenak sustatzea, Helduen Hezkuntza iraunkorra ematen duten udal zentroyen eta emakume elkarten artean, ikasketarik ez duten edo ikasketa maila baxua duten emakume alargunak titulu akademikoa lortu ahal izateko.</p> <p>Informazioko hizketaldiak egitea edo informazioa bidaltzea emakume elkarteei, enplegurako heziketaren arloan dauden programak argitaratzen direnean (Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu eta Heziketa Saileko Trebatzera Programa), eta programa horietan parte hartzen duten erakundeei (Fundazioak, Elkartek, Erakunde Publikoak, etab.) buruzko informazioa ere bidaltzea.</p>

A2: HEZIKETA

A2.2: HEZIKETA EZ AKADEMIKOA

DIAGNOSTIKOA	ONDORIOAK	EKINTZAK
<p>Emakume alargunen %36,1ek ikastaroren bat egin du.</p> <p>Emakume alargunen %50,7k parte hartu du eskulanekin, artisautzarekin, pinturarekin eta jostintzarekin loturiko ikastaroetan; talde horrek gehien eskatzen dituen ikastaroak horietan dira.</p>	<p>Emakume alargunek partaidetza baxua dute heziketan edo ikastaroetan.</p> <p>Erakundeek dirulaguntzak eta heziketa eskaintza oso anitzak egiten dituzte (informatika, eskulanak, etab.); hala eta guztiz ere, batzuetan sustatzen den heziketa mota ez da egokitzen emakume alargunen eskarira: eskularen ikastaroetarako laguntzen murriztapena.</p>	<p>Emakumeen elkarteei laguntza teknikoa ematea, eskaturiko heziketa jarduerak diseinatzeko eta antolatze orduan, Ahaldu Nagusiaren Kabineteak emakume elkarteei eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei egindako dirulaguntza-deialdiaren barruan, emakume alargunen eskaria eskaintzara egokitzeko.</p>
<p>Egindako ikastaroen %55,6 elkartean egin dituzte eta %17,4 udaletako zerbitzuen bitartez.</p> <p>Ikastaroetan parte hartzeko aurkitzen dituzten zailtasunak honako hauek dira: adina, astirik eza, osasuna eta ekonomia (%20,8).</p>	<p>Heziketa edo ikastaroak egiteko aurkitzen duten zailtasunetarako bat aldagai ekonomikoa da.</p> <p>Emakumeen elkarteetan edo udalen bidez egiten diren heziketa jardueren ia %100ek dirulaguntza dutela kontuan hartuta, dirulaguntzak kostu hori %100ean ez betetzeak zaildu egiten du talde horrek heziketa jakina egitea.</p>	<p>Emakume alargunen taldeak gehien eskaturiko ikastaroen dirulaguntza-partidak handitzea, Ahaldu Nagusiaren Kabineteak emakumeen elkarteei egindako deialdiaren barruan.</p>

3. ARLOA: LANA

Lehentasunezkozat detektaturiko hirugarren arloa lanarena da, eta bertan ere jarduketa zorrotza egin behar da.

Detektaturiko arloak:

- Elkartze-egituran parte hartzen duten Bizkaiko emakume alargunen taldearen ezaugarrietariko bat emakume horien batez besteko adina berrogeita hamabost eta hirurogei urte bitartekoa izatea da.

Emakume horien %90 ez dabil etxetik kanpo lanean, baina %50 lehen ibiltzen ziren etxetik kanpoko lanetan.

- Kasu askotan, laneratzea edo berriro laneratzea alargundu ostean gertatzen da; horrela, alarguntasunaren eraginez (batik bat, familia zamak egonez gero), emakume batzuk enplegu bila hasten dira. Bilaketa horren eragile nagusia, izan ere, ekonomikoa da, alarguntasunak berehalako premia sortzen baitu.
- Talde horren laneratzeari dagokionez, laneratze hori oztopatzen duten aldagai batzuk ikusten dira: emakumea, adin ertaina edo altua eta prestakuntza akademikoan maila baxua, baita talde horren beste ezaugarri bat ere: lana berehala aurkitzeko premia.
- Egoera horren ondorioz, sarritan talde hori "laneko behin-behinekotasun" egoeretan sartzen da, hau da, behin-behineko lanak aurkitzen ditu, soldataren, kontratu edo lan baldintzen, ordutegiaren eta abarren aldetik.

Jarduketarako proposamenak:

- Kanpaina publikoen bidez (liburuxkak, topaketak, prentsaurrekoak), sentsibilizazioa sortzea, emakume alargunen talde horren laneratzeari buruz, Bizkaiko enpresa- eta gizarte-eragileen artean.
- Informazioko hizketaldiak egitea eta informazioa bidaltzea, emakumeen elkarteei dagokienez, enplegurako heziketaren arloan dauden programak argitaratzen direnean (Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu eta Heziketa Saileko Trebatzera Programa), eta programa horietan parte hartzen duten erakundeei buruzko informazioa ere bidaltzea (Fundazioak, Elkarteak, Erakunde Publikoak, etab.).
- Emakumeen elkarteei, bazterturiko taldeak lanaren aldetik orientatzen dituzten erakundeei buruzko informazioa ematea (Behargintza, Lanbide, Lan Orientazioko Elkarteak).

A3: LANA

DIAGNOSTIKOA	ONDORIOAK	EKINTZAK
<p>Emakume alargunen %90 inguruk ez du etxetik kanpoko lanik egiten, baina %50ek lehenago egin du halako lanik. 35-49 urte bitarteko emakumeen %44,4 etxetik kanpo dabil lanean.</p>	<p>Talde honen barruko ehuneko handi batean, batik bat emakumerik gazteenen artean, alarguntasunaren eraginez lan merkatuan "integratzea" edo "berriro integratzea" gertatu da.</p>	<p>Kanpaina publikoen bidezko sentsibilizazioa behar da (liburuxkak, topaketak, prentsaurrekoak), emakume alargunen talde honen laneratzeari buruz, Bizkaiko enpresa- eta gizarte-eragileen artean.</p>
<p>Emakume alargunen %57,1 garbiketaren sektorean dabil lanean (profesionala edo etxeetan).</p> <p>%83,3 beharizan ekonomikoaren eraginez dabil lanean.</p>	<p>Taldearen ezaugarrien eta lan merkatuan sartu behar izatearen ondorioz, kasu askotan behin-behinekotasun handiko lanak hartu behar izaten dituzte.</p>	<p>Informazioko hizketaldiak egitea eta informazioa bidaltzea, emakumeen elkarteei dagokienez, enplegurako heziketaren arloan dauden programak argitaratzen direnean (Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu eta Heziketa Saileko Trebatzera Programa), eta programa horietan parte hartzen duten erakundeei buruzko informazioa ere bidaltzea (Fundazioak, Elkarateak, Erakunde Publikoak, etab.).</p>
<p>Emakumeok laneratzeko dituzten arazorik handienak adina, osasuna eta ikasketa maila dira.</p>	<p>Talde honek zailtasun bereziak ditu laneratzeko, honako aldagai hauen ondorioz: emakumea, adin ertaina edo altua, prestakuntza akademiko baxua, lan egiteko berehalako premia.</p>	<p>Emakumeen elkarteei bazterturiko taldeentzako lan orientazioa ematen duten erakundeei buruzko informazioa ematea (Behargintzak, Lanbide, Lan Orientazioko Elkarateak).</p>

4. ARLOA: EKONOMIA

Talde honen oinarrizko ezaugarria arazo ekonomikoa da eta horrek eragina dauka taldeko kideen ia %100ean.

Emakume alargunen talde honen arazo asko eragile ekonomiko horren ondoriozkoak dira: mendekotasuna, arazo psikologikoak, jarduera sozialetan parte hartzeko aukerarik eza, elkarteetako jardueretako partaidetza aktiboa, etab.

Detektaturiko arloak:

- Espainian, Alarguntasun Pentsioen Araubideari buruzko legeen eta arauen ondorioz, emakume alargun bati kasu askotan %50ean murrizten zaizkio etxean sartzen diren diru-sarrerak.
- Talde horren laneko jarduera tasa baxuen eraginez, etxeko diru-sarrera bakarra pentsioa da, kasu guztien %89,8an; pentsio horren batez bestekoa 350 eurokoa da, eta zenbateko hori ez da iristen Lanbide arteko Gutxieneko Soldatara (2004an 460,5 euro).
- Behin-behinekotasun ekonomiko horren ondorioz, premia egoera handiak sartzen dira; bertan, adina, mendekotasun maila edo osasun egoera eragile garrantzitsuak dira; izan ere, 60 urtetik gorako edo beherako emakume alargunen kasuan (gaixorik dauden alargunen kasuan), behin-behinekotasun ekonomiko hori gainditzeko lanen batean hasteko aukera ia nulua da.
- Behin-behinekotasun ekonomikoak eragina dauka emakume horien bizitza pertsonalean (psikologia, familia, gastuen murriztapena, ondasunen salmenta, etab.) eta sozialean (aisialdiko jarduera batzuk ez egitea, lagunak galtzea, etxez aldatzea, etab.).

- Sarritan ez dira egokitzen erakunde publikoek eskainitako laguntzetako eskaintzak eta baldintzak, eta horrek haserrea sortzen du talde horren barruan, erakunde publiko horien aurkako haserrea; gainera, sarritan ez da onartzen halakoak daudenik ere.

Gaur egun Eusko Jaurlaritzak Bizkaiko Lurralde Historikoan eskaintzen dituen laguntzak eta dirulaguntzak (arlotan ekonomikoari lotutakoak) anitzak dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak edo udaletako Zerbitzu Sozialek bideratzen dituzte; hala eta guztiz ere, emakume alargunen taldeak sarritan mugatuta dauka horiek jasotzeko aukera, eskatzen diren baldintzen eraginez (errenta, bizikidetzaren unitatea, ondarea, adina, onarturiko elbarritasun maila, etab.).

Erakunde horiek eskaintzen dituzten indarreko laguntza edo prestazio ekonomikoari dagokienez, honako hauek aipa daitezke:

- *Gizarte Ongizateko Fondoaren Pentsioa*; zahartzaroaren edo elbarritasunaren eraginezko aldi behingo prestazio ekonomiko honen erreferentziako arauak honako hauek dira:
 - Maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretua, Lan, Osasun eta Gizarte Segurantzaren Sailarena (1986/6/5eko EHAA).
 - Otsailaren 23ko 38/1988 Dekretua, 129/1986 Dekretuaren zati batzuk aldatu dituen (1988/3/3ko 44. EHAA).
 - Ekainaren 12ko 163/1990 Dekretua, 129/86 eta 38/88 Dekretuen zati batzuk aldatu dituen (1990/6/25eko 125. EHAA).
- *Oinarrizko errenta (lehenengo IMI)*: aldi behingo prestazio ekonomiko honen helburua, izan ere, oinarrizko beharrezan aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonen beharrezan betetzea da, eta horren erreferentziako arauak honako hauek dira:



- Maiatzaren 22ko 12/1998 Legea, Gizarte Bazterkeriaren aurkakoa (1998/6/8ko EHAA).
 - Azaroaren 10eko 8/2000 Legea, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea aldatu duena (2001/1/2ko 1. EHAA).
 - Abenduaren 27ko 10/2000 Legea, Gizarte Eskubideen Gutunari buruzkoa (2000/12/30eko 249. EHAA).
 - Apirilaren 20ko 198/1999 Dekretua, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-Sarrera arautu duena (1999/5/20ko 94. EHAA).
 - Ekainaren 25eko 4/2003 Legea, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea aldatu duena.
- *Laguntza osagarria: gutxieneko bermeko laguntzako prestazioa (PAGAMI):* laguntza ekonomiko finalista da, Oinarrizko Errenta osatzen du, eta horren erreferentziako araua honako hau da:
 - Otsailaren 12ko 13/2002 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuko gutxieneko bermeko laguntza-prestazioa arautu duena.
 - *Gizarteratzeko familia laguntza berezia:* aldian behingo dirulaguntza finalista eta subsidiario honen helburua oinarrizko beharrezan betetzea eta bazterkeria sozialeko egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea erraztea da, eta horren erreferentziako araua honako hau da:
 - Maiatzaren 23ko 64/2000 Foru Dekretua, Gizarteratzeko Laguntza Bereziak arautzen dituen araua (2000/6/23ko 121. BAO).
 - *Gizarteratzeko banakako laguntza berezia:* aldian behingo dirulaguntza finalista eta subsidiario hau egoera berezietan ematen da, bazterketa sozialeko egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea errazteko, eta laguntza hori helburu horrekin soilik eman behar da; horren erreferentziako araua honako hau da:
 - Maiatzaren 23ko 64/2000 Foru Dekretua, Gizarteratzeko Laguntza Bereziak arautu dituen araua (2000/6/23ko 121. BAO).

- *Larrialdi sozialeko laguntzak:* Laguntza ekonomiko hauek, eman ere, gastu arruntei edo bereziei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonen ematen zaizkie, gastuok bazterkeria sozialeko egoerak arintzeko edo ekiditeko beharrezkoak direnean, eta horren erreferentziako arauak honako hauek dira:
 - Maiatzaren 22ko 12/1998 Legea, Gizarte Bazterkeriaren aurkakoa (1998/6/8ko EHAA).
 - Azaroaren 10eko 9/2000 Legea, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea aldatu duena (2001/1/2ko 1. EHAA).
 - Abenduaren 27ko 10/2000 Legea, Eskubide Sozialen Gutunari buruzkoa (2000/12/30ko 249. EHAA).
 - Apirilaren 20ko 199/1999 Dekretua, Larrialdi Sozialeko Laguntzak arautu dituen (1999/5/20ko 94. EHAA).
 - 2000ko martxoaren 23ko Agindua, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuak emana; horren bidez, Larrialdi Sozialeko Laguntzen kontzeptutan eman beharreko gehieneko zenbatekoak ezartzen dira, gastu berezi bakoitzari dagokionez (2000/4/19ko 77. EHAA).

 - *Gizarteratzeko zentroetan egonaldiak ordaintzeko banakako dirulaguntzak:* Laguntza hauen helburua bazterketa sozialeko egoeran edo arriskuan dauden pertsonen egoitza-laguntza eskaintzea da, baldin eta halako egoitzetan sartu behar badira, eta horren erreferentziako araua honako hau da:
 - Abenduaren 16ko 262/2003 Foru Dekretua (2004ko urtarrilaren 5eko 2. BAO).

 - *Zentroetan sartzeko banakako dirulaguntzak:* Egoera kritikoan dauden emakumeak arretako egoitza edo zentro berezietan sartu ahal izateko, baldin eta emakumeok euren egoera fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen duten bizikidetzaz arazo larriak edota arrazoi sozioekonomiko larriak badituzte, eta horren erreferentziako arauak honako hauek dira:
-



- Abenduaren 10eko 202/2002 Foru Dekretua, emakumeen harrerako zentroetan sartzeko banakako dirulaguntzak lortzeko eta emateko sistemaren baldintzak arautu dituena (2003ko urtarrilaren 3ko 2. BAO).
 - Uztailaren 28ko 168/2003 Foru Dekretua, abenduaren 10eko 202/2002 Foru Dekretua aldatu duena; azken horren bidez, emakumeen harrerarako zentroetan sartzeko banakako dirulaguntzak lortzeko eta emateko sistemaren baldintzak arautu dira (2003ko abuztuaren 11ko 151. BAO).
 - Abenduaren 16ko 256/2003 Foru Dekretua, abenduaren 10eko 202/2002 Foru Dekretua aldatu duena; azken horren bidez, emakumeen harrerako zentroetan sartzeko banakako dirulaguntzak lortzeko eta emateko sistemaren baldintzak arautu dira, eta horrela, 2004rako, bidezko kredituaren eta aurrekontu-esleipenaren muga gaurkotuko da (2003ko abenduaren 30eko 249. BAO).
- *Kontribuziokoa ez den pentsioa:* aldian behingo prestazio ekonomiko hori elbarritasun maila jakina dagoenean eta errenta edo diru-sarrera nahikorik ez dagoenean ematen da, eta horren erreferentziako arauak honako hauek dira:
 - Abenduaren 20ko 26/1990 LEGEA, Gizarte Segurantzaren kontribuziokoak ez diren prestazioak ezarri dituena (1990eko abenduaren 22ko 306. EAO).
 - Martxoaren 15eko 357/1991 ERREGE DEKRETUA, Gorteekiko Harremanetarako Ministerioak eta Gobernuko Idazkaritzak emandakoa; horren bidez, 26/90 Legea garatu da, kontribuziokoak ez diren pentsioen arloan (1991ko martxoaren 21eko 69. EAO).
 - Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorreko testu bategina, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia (1994ko ekainaren 29ko 154. EAO).
 - Urtarrilaren 30eko 118/1998 ERREGE DEKRETUA, martxoaren 15eko 357/1991 Errege Dekretua aldatu duena, Gizarte Segurantzako sisteman kontribuziokoak ez diren pentsioak jasotzeko eskubiderako

ezarrita dauden baldintzak egiaztatzeari dagokionez (1998ko otsailaren 18ko 42. EAO).

- *Banakako laguntzak elbarritasuna duten pertsoneri:* Banakako Laguntza Publikoak dira, pilaketa bakunaren araubidekoak, eta elbarritasuna duten pertsoneri ematen zaizkie, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenen eremuan, eta horien erreferentziako araua honako hau da:
 - Ekainaren 4ko 106/2002 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Foru Aldundiak emana; horren bidez, elbarritasuna duten pertsoneri 2002an laguntzak emateko deialdi publikoa onetsi da (2002ko ekainaren 30eko 113. BAO).

Jarduketarako proposamenak:

- Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusiak "presioko taldeak" dinamizatzea, eskumena duten Erakunde Publiko Zentralei emakume alargunen taldearen errebindikazioak jakinarazteko, oraingo Alarguntasun Pentsioen Araubideko baldintzei dagokienez.
- Publizitate kanpainen bidez (prentsurrekoak, egunkarietako artikuluak, kartelak), Bizkaiko biztanleak sentibilizatzea, pentsioei buruzko oraingo arauen eraginezko alarguntasun erregimenak eragin dezakeen bazterketa sozialeko egoerari dagokionez.
- Informazioko liburuxkak diseinatzea eta banatzea, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak eta udalek emakumeen elkarteei eskainitako dirulaguntzei buruz, emakume alargunen taldeek horiek eskuratzeko aukera baitute.

A4: EKONOMIA

DIAGNOSTIKOA	ONDORIOAK	EKINTZAK
<p>Emakume alargunen %90aren kasuan, alarguntasun pentsioa jasotako diru-sarrera bakarra da.</p> <p>Estatuan Pentsioen Araubidearen arloan dagoen Legeriaren eraginez, emakume alargunen baliabide ekonomikoak ia %50ean murrizten dira.</p>	<p>Alarguntasun pentsioen sistemaren eta ezarritako ehunekoen ondorioz, Bizkaiko emakume alargunek jasotako pentsioaren batez bestekoa 350 eurokoa da, eta zenbateko hori Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino txikiagoa da.</p> <p>Estatuko Gizarte Segurantzaren Sistemari buruzko Legean, Pentsioen Araubideari buruzko kapituluan, behin-behinekotasun ekonomikoarekin loturiko egoera markatzen da, Bizkaiko emakume alargunen ehuneko handi batean.</p>	<p>Genero Politiken Idazkaritza Tekniko Nagusiak "presioko taldeak" dinamizatzea, emakume alargunen taldearen errebindikazioak Erakunde Publiko Zentralei jakinarazteko, Alarguntasun Pentsioen oraingo Araubidearen baldintza ekonomikoei dagokienez.</p> <p>Publizitateko kanpainen bidez (prentsurrekoak, egunkarietako artikulak, kartelak), Bizkaiko biztanleak sentibilizatzea, pentsioei buruzko oraingo araudien eraginezko alarguntasun araubideak eragin dezakeen bazterketa sozialari dagokionez.</p>
<p>Emakume alargunen %0,9k kanpoko dirulaguntzaren bat jasotzen du.</p>	<p>Emakume alargunak haserre daude, erakunde publikoek dirulaguntza batzuk jasotzeko jartzen dituzten baldintzekin.</p> <p>Dirulaguntzei buruzko informazio eza handia dago; gainera, talde horretan, adinak, heziketa maila txikiak, "ohitura ezak" edo "kulturak" oztopatu egiten dute emakume horiek halako laguntzak eta zerbitzuak jasotzea.</p>	<p>Informazio liburuxkak diseinatzea eta banatzea, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak eta udalek emakume elkarteei eskainitako dirulaguntzei buruz, emakume alargunen talde horrek halakoak eskuratzeko aukera baitauka.</p>

5. ARLOA: AISIALDIA-ASTIALDIA

Ikerketa honen ondorio nagusienetariko bat hauxe da: alargun gelditzen denean, emakumeak aldatu egiten ditu aisialdiko edo astialdiko ohiturak.

Arazo psikologikoek eta sozialek eragin zuena dute egiten diren aisialdiko edo astialdiko jardueretan, eta horrela, halako jarduerak egiteko eta partekatzeke modu berriak bilatzen dira.

Detektaturiko arloak:

- Emakume alargunen taldeak aisialdirako edo astialdirako denbora betetzeko helburua duten jardueren eskaria dauka; jarduera horiek kulturalak eta aisialdikoak izaten dira.
- Emakume alargunek beste pertsona batzuekin harremanak edukitzeko eta jarduerak partekatzeke lekuak sortzeko premia ikusi da; jarduera horiek kulturalak (antzerkia, museoak, etab.) edo aisialdikoak (jolasak, dantza, kafea hartu, paseoan ibili, afaltzera irten, etab.) izan daitezke. Eginkizun hori, gehienbat, emakumeen elkarteek betetzen dute, batzuetan baliabide material edo giza baliabide nahikorik gabe.
- Erakundeek eskaintzen dituzten aisialdiko edo astialdiko jarduerari buruzko informazio eza ez da elementu erabakigarria, emakume alargunek halako jardueretan duten partaidetza handiagoa edo txikiagoa izateari dagokionez.

Arazoa ez da informaziorik eza, talde horretan sarritan dagoen behin-behinekotasun ekonomikoa baizik, eta horrek eragin zuzena dauka aisialdiko edo astialdiko jarduera batzuk egiteko aukeran: ikastaroak, kirola, ibilaldiak, bisitaldi kulturalak, zinea/antzerkia, bidaiak.

Aldundiak, udalek, mankomunitateek edo emakumeen elkarteek diruz lagundutako aisialdiko edo astialdiko jardueren eskaintza zabala egiten duten arren, kasu askotan horietarako dirulaguntza ez da %100ekoa izaten, eta beraz, oinarrizko diru-sarrerara ekonomikoak dituen talde horrek ezin die horien kostuari aurre egin, kostu hori txikia izan arren.

Taldeak egiten dituen aisialdiko eta astialdiko jardueren artean (adinaren, generoaren, zaletasunen eta abarren arabera), honako hauek aipa daitezke:

- *Ahaldun Nagusiaren Kabineteak emandako dirulaguntzak, Bizkaiko udalei, udal mankomunitateei eta horien menpeko erakunde autonomoei*, horiek Parekatuz proiektuan parte hartuz gero; bertan, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna eta generoko politikak sustatzeko jarduerak egiteko proiektuak eta planak jorratzen dira: dirulaguntza jasotzen duten ekintza desberdinen artean, kulturako eta kiroleko jarduerak daude, %100era arteko dirulaguntzarekin, 600 euroko gehieneko mugarekin; halaber, emakumeen elkarten jarduerak egiteko behar den azpiegitura eskaintzeko gastuek ere dirulaguntza dute, 900 euroko gehieneko mugarekin. 2004an dirulaguntza horiek arautu dituen araudia hauxe izan da: Bizkaiko Foru Aldundiak abenduaren 9an emandako 252/2003 Foru Dekretua.
- *Ahaldun Nagusiaren Kabineteak emakumeen elkarteei eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei emandako dirulaguntzak*; bertan, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna eta generoko politikak sustatzeko jarduerak egiteko proiektuak eta planak jorratzen dira: dirulaguntza jasotzen duten ekintza desberdinen artean, heziketako jarduerak edo aisialdia edo astialdia sustatzeko jarduerak sartzen dira, %75-100 bitarteko dirulaguntzarekin, eta dirulaguntzaren gehieneko muga aldagarria da, dirulaguntza hori jasoko duen kontzeptuaren arabera. 2004an dirulaguntza horiek arautu dituen araudia hauxe izan da: Bizkaiko Foru Aldundiak abenduaren 9an emandako 253/2003 Foru Dekretua.



- *Euren karguan seme-alabak dituzten emakumeentzako Astialdiko Egonaldi Programa*, eta banakako dirulaguntzen emakidaren arauketa, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailean parte hartzeko: Astialdiko Egonaldi Programa euren karguan seme-alabak dituzten emakumeei zuzenduta dago, baldin eta behin-behinekotasun ekonomikoarekin loturiko egoeran badaude; horrela, astialdiko giro baten barruan (oporretako atsedena), euren garapen pertsonala eta harreman sozialen normalizazioa bultzatzen duten helburu sozio-hezkuntzakoak aztertzen dira, aisialdiko hezkuntzaren eta kide bakarreko talde horrekiko laguntza sozialaren sustapenean oinarrituz; horren erreferentziako araua honako hau da:
 - Martxoaren 30eko 52/2004 Foru Dekretua; horren bidez, euren karguan seme-alabak dituzten emakumeen Astialdiko Egonaldi Programan sartzeko baldintzak ezarri dira (2004ko apirilaren 6ko 66. BAO).

- *ADINEKO bidaiak*: 60 urteko edo gehiagoko pertsonentzako bidaiak dira; errentaren araberako kostua eta dirulaguntza dute, bidaia egiteko, eta horren erreferentziako araua honako hau da:
 - Bizkaiko Foru Aldundiak azaroaren 25ean emandako 221/2003 FORU DEKRETUA; horren bidez, "Adineko 2004" programako jarduerak egiteko baldintzak ezarri dira, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren adineko pertsonentzat, eta gainera, programa horren barruko jardueretarako dirulaguntzen emakida ere arautu da (2003ko abenduaren 26ko 240. BAO).

